




# Iruñeko Udalaren kontu orokorra, 2022



*2023ko abendua*



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA





## Aurkibidea

I. SARRERA .....	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA .....	5
III. IRITZIA .....	6
III.1 Finantza-auditoretzako iritzia .....	6
III.2 Legeria betetzeari buruzko iritzia .....	6
IV. IRITZIAREN OINARRIA .....	7
IV.1. Legezketasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin .....	7
V. AUDITORETZAREN FUNTSEZKO AUZIAK .....	8
VI. AZPIMARRA-PARAGRAFOA .....	9
VII. BEST KONTU BATZUEN PARAGRAFOA .....	10
VIII. IRUÑEKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA .....	12
IX. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA .....	13
X. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	15
1. GEHIGARRIA. UDALAREN 2022KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA .....	16
2. GEHIGARRIA. UDALA .....	19
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA .....	23
4. GEHIGARRIA. SALBUESPENEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA .....	24
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUN-FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	25
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK .....	67
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA IRUÑEKO UDALAREN URTEKO KONTU BATERATUEN OROITIDAZKIA, 2022KO ABENDUAREN 31KOA	





## I. Sarrera

Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari eta 2023ko ekitaldirako fiskalizazio-programarekin bat, 2022ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu da, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen (aurrerantzean EA) legezketasunaren betetzearen fiskalizazioarekin uztartuta.

Landa-lana 2023ko ekainetik irailera bitartean egin zuen lantalde batek, zeina auditoretzako lau teknikarik, sistema informatikoetako erdi-mailako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboek laguntza eman zuten.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan xedatuari jarraikiz, lan honen emaitzak Iruñeko Udalaren gaur egungo alkateari eta aurreko alkateari jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen. Ezarritako epean alkateak alegazioak aurkeztu ditu, eta txosten honetan jaso dira, Ganbera honen erantzunarekin batera.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Udaleko eta haren menpeko enteetako langileei.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira zentimoak ez erakusteko. Datuek balio zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez biribildutako balioen gainean.





## II. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa

Lanaren helburua da gure iritzia ematea honako hauen inguruan:

- Ea Udalaren 2022ko ekitaldiko kontu orokorra, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duen 2022ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, jarraiturik aplikatzekoa den informazio finantzarioaren araudiari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.

- Ea 2022ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Fiskalizazioaren norainokoa Udalaren kontu orokorra da, zeinaren edukia, 272/1998 Foru Dekretuan ezarria, honako hau baita:

a) Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen kontua.

- Aurrekontu-likidazioaren espedienteak.
- Ekonomia-, ondare- eta finantza-egoeraren espedienteak: egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.

- Eranskinak: diruzaintzako egoera, etorkizuneko gastuen eta diru-sarreraren konpromisoen egoera, baloreen egoera eta mugimendua, eta tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen kostuen oroitidazkia.

b) Entitateak partaidetza guztiak dituen merkataritza-sozietateen kontuak: egoera-balantzea eta galera-irabazien kontua.

c) Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria, partaidetza handiena toki entitatearena duten merkataritza-sozietateen kontuak eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Legeriaren betetzeari dagokionez, norainokoa dagokie txosten honen 5. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Kanpoko profesionalek erakunde autonomoetan, enpresa publikoetan eta Gyarre Antzokia udal-fundazioan egindako kontu-auditoretzako eta legezketasuneko txostenak aztertu ditugu.





### III. Iritzia

Kontuen Ganberak, hura arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Iruñeko Udalaren kontu orokorra fiskalizatu du, zeinak barne hartzen baititu batez ere egoeraren balantzea 2022ko abenduaren 31n, irabazien eta galeren kontua, aurrekontuaren likidazio-espeditentia eta oroitidazkia.

Era berean, Udalak eta haren erakunde autonomoek legezatasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

#### III.1 Finantza-auditoretzako iritzia

Gure iritziz, 2022ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Nafarroako Arartekoaren 2022ko abenduaren 31ko ondareaz eta finantza-egoeraz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere informazio finantzario publikoa dela-eta aplikatzekoa den araudiari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideen arabera.

#### III.2 Legeria betetzeari buruzko iritzia

Gure ustez, gure txostenaren “Legezatasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean deskribatu ditugun kontuen eraginengatik ez bada, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Iruñeko Udalaren 2022ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.





## IV. Iritziaren oinarria


Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioei legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta ISSAI-ES 400 arauetan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazioari buruzko gida praktikoak erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean, kontu orokorraren fiskalizazioari eta legezkotasuna betetzeari dagokienez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorrari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria jasotzen du finantza-fiskalizazioaren aldeko iritzitari eta legezkotasuna salbuespenekin betetzeari buruzko iritzitari eusteko.

### IV.1 LEGEZKOTASUNARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- 2022ko ekitaldian kontratu-estaldurarik gabe emandako zerbitzuen gastu aitor-tuak, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu denez, 21 milioi dira Udalean, 26.221 euro Haur Eskolak erakunde autonomoan eta 25.535 euro Hirigintza Gerentzia erakunde autonomoan.

-  Labriteko pasabidearen egiturazko sendotzea eta egokitzapena egiteko obra 593.718 euroan adjudikatu zen, eta amaierako exekuzioa 1.059.608 eurokoa izan zen, ehuneko 78 handiagoa. Zenbateko horretan sartzen dira pasabidearen bideragarritasunerako beharrezkoak diren eta birgaitze-obraren parte diren 250.009 euro jotzen duten lanak, munta txikiko kontratu gisa izapidetuak.

Obraren enpresa esleipen-hartzaileak kontratuaren exekuzioaren ehuneko 59,53 azpikontratatu zuen, eta gainditu egin zuen kontratazioaren plegu arautzailean eta kontratuaren baldintza partikularretan ezarritako ehuneko 30eko maximoa.





## V. Auditoretzaren funtsezko auziak

Auditoretzaren funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak egungo epealdiko kontu orokorrari buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu kontu orokorra osoki aintzat hartuta egin dugun auditoretzaren testuinguruan, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

“Legezkotasunari buruzko iritziaren oinarria, salbuespenekin” atalean deskribatu ditugun kontuak izan ezik, gure fiskalizazioan ez dugu funtsezkotzat jotzen den jakinarazi beharreko konturik.







## VI. Azpimarra-paragrafoa

Honako gai hauek direla-eta arreta deitu nahi dugu:

• 2022ko ekitaldian aurrezki gordina eta garbia murriztu da, funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arruntak baino proportzio handiagoan handitu direlako, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Adierazlea	2021	2022	Aldea (%)
Diru-sarrera arruntak	222.623.226	229.736.244	3
Funtzionamendu-gastuak	193.424.046	208.035.803	8
Aurrezki gordina	29.199.180	21.700.441	-26
Finantza-zama	10.224.482	8.044.636	-21
Aurrezki garbia	18.974.698	13.655.805	-28

Kontu-hartzaileak kontu orokorrari buruzko txostenean adierazten duen bezala, finantza-osasun ona izateko, komeni da funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arruntak baino gehiago ez haztea, eta, horretarako, beharrezkoa izan daiteke Udalaren gastuak murrizteko eta/edo baliabide arruntak sortzeko gaitasuna handitzeko neurriak hartzea.

• 300.000 eurotik gorako ondorio ekonomikoak izan litzaketen eta oroitidazkian aipatzen diren 18 prozedura judizialeetatik, 12 lotuta daude ordainsariez bezainbatean 400 udaltzain foruzainekin parekatzearekin, eta izan dezakeen eragin ekonomikoa 1,9 milioitan balioztatu da.

Gai horiei dagokienez, gure iritzia ez da aldatu.





## VII. Best kontu batzuen paragrafoa

Europar Batasunak "Next Generation EU" funtsak onartu zituen, 750.000 milioiko baliokoak, estatu kide guztientzat, COVID-19ak eragindako eragin ekonomiko eta soziala arintzeko eta susperraldi ekonomikoa bultzatzeko. Espainiak gehienez ere 140.000 milioi jasotzen ahalko ditu 2021-2026ko epealdian, eta horietatik 69.528 transferentzia ez-itzulgarriak dira.

2022ko abenduaren 31ra bitarte, Iruñeko Udalak 28,23 milioi jaso ditu Next Generation EU funtsetatik. Zenbateko horretatik, Udalak 13,20 milioiko eskubiak aitortu ditu, kobratutako funtsei dagozkienak.

2022ko abenduaren 31n, Next Generation funtsekin finantzatutako gastuak 9,90 milioi dira, eta honako proiektu hauei dagozkie:

Proiektuak	Emakidaren urtea	Emandako zenbatekoa	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Hiri-agenda	2021	250.000	250.000	265.655
Mugikortasuna (Isurketa baxuko eremua)/Iruña Aurrera	2021	6.330.426	4.273.037	6.504.306
SF 365 Jasangarritasun Turistikoko plana	2021	5.492.500	5.492.500	216.775
Merkatuak eta hiri-eremu komertzialak laguntzea	2021	1.909.151	1.909.151	1.378.161
Merkatuak, hiri-eremu komertzialak eta komunikazio-kanalak laguntzea	2022	1.025.576	0	0
Toki administrazioaren modernizazioa eta digitalizazioa	2022	758.000	379.000	503.173
Runa 2025 (birnaturalizazioa)	2021	2.596.607	0	0
Merkataritza-jarduerak sustatzea eremu turistikoetan	2022	781.292	0	0
Ekosistema digitalak ikus-entzunezko sektorean I	2022	1.723.132	0	0
Espezializazio teknologikoko lurralde-sareak	2022	4.350.000	0	0
Auzo-lerroak: Sanduzelai eta Sarrigurrengo errepidea	2022	1.355.628	0	0
Auna proiektua (Gizarte-zerbitzuak)	2022	436.542	0	91.288
Prestakuntza: Kalteberatasun egoeran dauden emakumeak programa	2022	120.000	59.692	31.766
Miluzeko bidegorria	2022	833.235	833.234	705.045
Gizarte-zerbitzuen digitalizazioa	2022	270.206	0	203.616
<b>Guztira</b>		<b>28.232.295</b>	<b>13.196.614</b>	<b>9.899.785</b>

Next Generation funtsekin finantzatutako gastu aitortuen ehuneko 92 kapitalekoak dira, eta gainerako ehuneko zortzia, gastu arruntak. Diru-sarrera aitortuei dagokienez, ehuneko 75 kapitalekoak dira, eta ehuneko 25 arruntak.





Finantzatzen dituzten funtsen eta gastuen kontabilitate-jarraipena gastu-proiektuen bidez egiten da, eta ondoriozko finantzaketa-desbideratzeak behar bezala egozten zaizkie aurrekontu-emaitzari eta diruzaintza-gerakinari.





## VIII. Iruñeko Udalaren erantzukizuna

Udaleko Ogasun Zuzendaritzaren ardura da kontu orokorra osatzea, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren eta ekonomia- eta aurrekontu-emaitzen irudi fidela emateko moduan, erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat etorriz. Era berean, bermatu behar du jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta kontu horretan jasotako informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko urriaren 5ean onetsi zuen kontu orokorra.

Era berean, Udalaren ardura da beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, kontu orokorra akats edo iruzurraren ondoriozko oker materialik gabe prestatu ahal izateko, eta bermatzeko egindako jarduerak ez duela lege ez-betetzerik izanen.





## IX. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure helburua da arrazoizko segurtasun bat lortzea, kontu orokorrak, oro har, ez duela iruzurraren edo errorearen ondoriozko akats materialik izango, eta kontu horretan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, gure iritzia jasoko duen erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat egiteko.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoak arautzen dituen araudiaren arabera egindako fiskalizazioak beti detektatuko duenik akats material bat edo ez-betetze nabarmen bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izan daitezke, bai eta legezko-tasuna ez betetzearen ondoriozkoak ere, eta materialtzat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Kanpoko kontrol-organoak arautzen dituen araudiaren arabeko fiskalizazio baten zati gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan. Halaber:

- Kontu orokorrean iruzur edo errorearen ondoriozko oker materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzirako oinarri bat emateko nahikoa eta egokia den auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurrak eragindako oker materiala ez detektatzeko arriskua handiagoa da akats baten ondoriozko batekin alderatuta; izan ere, iruzurrak ekar dezake kolusioa, faltsutzea, nahita egindako omisioak, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.


- Barne-kontrola dela-eta fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren ebaluatzen dugu, bai eta kontabilitate-estimazioen eta kudeaketa-organook jakinarazitako informazioaren arrazoizkotasuna ere.

- Kontu orokorraren aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen dugu, emandako informazioa barne, eta transakzioak eta azpiko egitateak fidelki irudikatzen ote diren.

Erakundearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, jorratze aldera planifikatutako auditoria-proben norainokoa eta horiek egiteko unea, fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuak eta barne-kontrolari dagokionez fiskalizazioan zehar identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri. Erakundearen gobernu-organuari jakinarazi zaizkion gaien artean, kontu orokorraren fiskalizazioan





esanguratsuenak izan direnak zehaztu ditugu, ondorioz, auditoretzaren funtsezko gaiak direnak.





## X. Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena

Indarrean jarraitzen dute aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenetan egindako gomendio hauek, eta lehentasunezkoztat jotzen dugu haiek betetzea:

- *Kontu-hartzaitzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, gero erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta Udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Nomina alde zurretik fiskalizatzea.*

- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gainditzeko.*

- *Balorazio osoko txostena onestea, katastroko balioak eguneratzeko.*

Era berean, txosten honen 5. gehigarrian jaso ditugu 2022ko ekitaldiko finantza- eta legezkoitasun-fiskalizazioaren eta aurreko fiskalizazioen ohar eta aurkikuntzei buruzko beste gomendio batzuk.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digitalki sinatua, alboan ageri den egunean)*





## 1. gehigarria. Udalaren 2022ko ekitaldiko kontu orokorraren laburpena<sup>1</sup>

### 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua (Udala eta erakunde autonomoak)

#### Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldak.	Behin betiko kreditua	ABG	Ordainketak	Exekutua (%)	Ordainketak (%)
1. Langileria gastuak	97.137.607	9.718.961	106.856.568	106.557.416	106.296.201	100	100
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	75.931.550	10.025.299	85.956.849	82.361.576	70.026.429	96	85
3. Gastu finantzarioak	465.000	0	465.000	397.171	382.240	85	96
4. Transferentzia arruntak	18.600.993	1.792.735	20.393.729	19.116.811	16.472.739	94	86
5. Kontingentzia funtsa	0	0	0	0	0	-	-
6. Inbertsio errealak	8.200.078	37.660.891	45.860.969	30.967.249	22.314.928	68	72
7. Kapital-transferentziak	0	4.556.918	4.556.918	3.409.402	2.035.057	75	60
8. Finantza-aktiboak	376.000	0	376.000	169.419	163.419	45	96
9. Finantza-pasiboak	7.653.500	0	7.653.500	7.647.465	7.369.687	100	96
<b>Guztira</b>	<b>208.364.728</b>	<b>63.754.805</b>	<b>272.119.533</b>	<b>250.626.509</b>	<b>225.060.700</b>	<b>92</b>	<b>90</b>

#### Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	AEG	Kobrantzak	Exekutua (%)	Kobrantzak (%)
1. Zuzeneko zergak	54.518.000	0	54.518.000	60.943.309	57.974.885	112	95
2. Zeharkako zergak	6.560.103	0	6.560.103	10.111.084	8.720.229	154	86
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	29.705.600	430.000	30.135.600	44.711.527	33.153.626	148	74
4. Transferentzia arruntak	107.229.625	4.105.140	111.334.765	111.656.732	111.640.605	100	100
5. Ondarezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	2.980.100	0	2.980.100	2.313.592	1.801.910	78	78
6. Inbertsio errealeen beste-erentzea	0	3.994.145	3.994.145	10.940.894	10.940.894	274	100
7. Kapital-transferentziak	6.995.300	5.590.166	12.585.466	14.245.357	13.743.962	113	96
8. Finantza-aktiboak	376.000	24.412.374	24.788.374	171.071	50.308	1	29
9. Finantza-pasiboak	0	25.222.979	25.222.979	15.000.000	15.000.000	59	100
<b>Guztira</b>	<b>208.364.728</b>	<b>63.754.805</b>	<b>272.119.533</b>	<b>270.093.565</b>	<b>253.026.418</b>	<b>99</b>	<b>94</b>

<sup>1</sup> Kontu orokorraren eduki osoa hemen kontsulta daiteke:

<https://www.pamplona.es/ayuntamiento/presupuestos-municipales>







2022ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza bateratua  
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2021	2022
Aitortutako eskubide garbiak	241.660.051	270.093.565
Aitortutako betebeharrak garbiak	-255.110.762	-250.626.509
<b>Aurrekontu-emaitza</b>	<b>-13.450.711</b>	<b>19.467.056</b>
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-4.270.510	-11.873.212
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	15.770.808	4.271.301
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	5.809.848	14.197.320
<b>Aurrekontu-emaitza doituia</b>	<b>3.859.435</b>	<b>26.062.465</b>

2022ko ekitaldiko diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria  
(Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2021	2022	Aldea (%)
<b>(+) Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>20.812.864</b>	<b>24.797.382</b>	<b>19</b>
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	15.530.766	17.099.046	
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	21.539.718	26.282.468	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	744.025	326.529	
(+) Ordainketen itzulketak	2.715	400.124	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-16.962.218	-19.298.202	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-42.143	-12.583	
<b>(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>-55.003.638</b>	<b>-42.160.008</b>	<b>-23</b>
(-) Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-43.767.466	-25.565.809	
(-) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-1.324.751	-6.507.251	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-9.841.870	-9.945.054	
(-) Ordaintzeko dauden itzulketak	-196.697	-204.325	
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	127.146	62.431	
<b>(+) Diruzaintzako funts likidoak</b>	<b>82.508.882</b>	<b>79.879.854</b>	<b>-3</b>
<b>(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak</b>	<b>24.814.147</b>	<b>22.930.021</b>	<b>-8</b>
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>73.132.254</b>	<b>85.447.248</b>	<b>17</b>
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	21.075.321	26.351.697	25
Diruzaintzako gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	23.495.636	23.479.665	0
Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarakoa	28.561.297	35.615.886	25





Egoeraren balantze bateratua 2022ko abenduaren 31n

(Udala, erakunde autonomoak eta Comirua SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU udal enpresak)

Deskribapena	ekitaldia 2021	ekitaldia 2022	Deskribapena	ekitaldia 2021	ekitaldia 2022
<b>A Ibilgetua</b>	1.281.856.934	1.310.592.868	<b>A Funtz propioak</b>	1.106.370.463	1.144.100.991
1 Ibilgetu materiala	565.809.481	576.977.196	1 Ondarea eta erre- serbak	667.009.370	685.813.601
2 Ibilgetu ez-materiala	22.923.903	22.941.015	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (ete- kina)	20.183.199	25.484.318
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasu- nak	684.040.627	699.946.056	3 Kapital-dirulagun- tzak	419.177.894	432.803.072
4 Herri-ondasunak		0	<i>Arriskueterako</i>		
5 Ibilgetu finantzarioa	9.082.924	10.728.601	<b>B eta gastueterako hornidurak</b>	207.250.560	211.980.723
<b>B Zenbait ekitalditan ba- natu beharreko gastuak</b>		0	4 Hornidurak	207.250.560	211.980.723
6 Kitatu beharreko gastuak		0	<b>C Epe luzeko har- tzekodunak</b>	49.344.002	48.526.889
<b>C Zirkulatzaila</b>	139.857.034	139.562.613	4 Jesapenak, maile- guak eta jasotako fi- dantzak eta gordai- luak	49.344.002	48.526.889
7 Izakinak	11.799.053	10.563.888	<b>D Epe laburreko hartzekodunak</b>	58.748.944	45.546.878
8 Zordunak	39.405.184	45.157.714	5 Aurrekontu itxietako eta aurrekontuz kan- poko hartzekodunak	58.706.801	45.534.295
9 Finantza-kontuak	88.504.607	83.768.464	6 Aplikatzeko dau- den partidak eta aldizkatzearen on- doriozko doitzeak	42.143	12.583
10 Finantzaketa-egoera iragan- korra, aldizkatzeak eragin- dako doitzeak, aplikatzeko daudenak	148.189	72.547			
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko ga- lera)	0	0			
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>1.421.713.968</b>	<b>1.450.155.481</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>1.421.713.968</b>	<b>1.450.155.481</b>





## 2. gehigarria. Udala.

Iruña, Nafarroako hiriburua, 2022ko urtarrilaren 1ean 203.418 biztanle zituen udalerria da.

Iruña, 175.000 biztanle baino gehiagoko probintziako hiriburua eta autonomia-erkidegoko hiriburua denez, biztanle askoko udalerrizat hartzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aplikatzeko beharrezko udal-organoen antolaketari eta funtzionamenduari eta kudeaketa ekonomiko-finantzari-oiari.

Udal antolaketa, besteak beste, honako organo hauek osatzen dute: Osoko Bilkura, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

2022an, Alkatetza Kabinetearen Alorrak eta zinegotzi-eskuordetuen mendeko zortzi gobernu-alorrek osatzen dute Udalaren administrazio-egitura.

Udalak, zerbitzu publikoak kudeatzeko, erakunde hauek sortu ditu:

- Erakunde autonomoak:

- Udalaren haur eskolak: haur eskolen zerbitzuaren kudeaketa.

- Hirigintzako Udal Gerentzia: hirigintza-kudeaketa Iruñeko udal-mugartean.

- Merkataritza-sozietateak:

Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate haue-tan:


Enpresa	Partaidetza (%)	Xede soziala
Comiruña SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico-Iruña Biziberritzen, SAU	100	Hirigune historikoko hirigintza
Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU	100	Etkez etxeko laguntza zerbitzua
Animsa, SA	77,69	Udal informatika
Mercairuña SA	51	Handizkako merkatuak

- Gayarre Antzokia Fundazioa, antzoki hori kudeatzeko eta administratzeko.





Udalaren eta haren mendeko erakundeen antolaketa-egitura honako grafiko honetan ikusten da:





Hona hemen 2022ko ekitaldia ixtean Udalaren eta haren mendeko erakundeen datu ekonomiko eta pertsonal nagusiak:

• Administrazioaren sektore publikoa:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2022-12-31n*
Udala	266.512.556	247.113.124	1.453
Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoa	9.988.320	9.634.069	25
Haur Eskolak erakunde autonomoa	11.607.319	11.893.946	255
- Bateratzearen doitzeak	-18.014.630	-18.014.630	-
<b>Gutzizkoa, bateratua</b>	<b>270.093.565</b>	<b>250.626.509</b>	

\*Oroitidazkiaren datuak

2022an, Udalak transferentzia arruntei dagozkien 12,93 milioi eman zizkien erakunde autonomoei, eta kapital-transferentziei dagozkien 4,76 milioi.

• Merkataritza-sozietateak:

Sozietate publikoa	Negozio-kopuru garbia	Emitza ekitaldia	Udal-dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Plantilla batezbestekoa (2022)
Comiruña, SA	421.516	16.758		100.999	2.373.410	5,54
Pamplona C. Histórico, SAU	683.561	-214.291	1.018.751	3.860.140	17.617.104	4,3
Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua	0	-124.486	6.071.866	0	618.225	163,57
Animsa	8.834.259	1.700		20.100	1.720.702	113
Mercairuña SA	1.231.134	179.994		89.426	9.367.635	11,01

• Fundazioak:

Fundazioa	Jardueraren diru-sarrerak	Ekitaldiko emitza	Udal-dirulaguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Batez besteko plantilla, 2022
Gayarre Antzokia	1.692.573	-46.325	960.000	0	438.118	15

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamendukoak eta hiri garraiokoak





(autobus- eta taxi-zerbitzuak). Hiri-garraiorako haren alde aitortutako gastua 3,66 milioikoa izan da 2022an.

Udalak ematen dituen zerbitzuak eta horiek emateko modua honako hauek dira:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa			Zehar- kako kudea- keta:	Mankomuni- tatea
	Udala	Era- kunde autono- moak	Enpresa publikoa	Zerbitzu- kontratua	
Argiteria publikoa	x			x	
Hilerria	x				
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea					x
Bide-garbiketa	x			x	
Uraren ziklo integrala					x
Estolderia	x				
Parke publikoa	x			x	
Liburutegia-ludoteka	x				
Gizarte zerbitzuak			x		
Kirol instalazioak	x			x	
Bidaiarientzako hiri barruko garraio kolektiboa					x
Hirigintza	x	x	x		
Udaltzaingoa	x				
Ingurumena	x			x	
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	x			x	
Ikastetxe publikoak mantentzea	x				
Merkatua			x		
Berdintasunaren sustapena	x				
Turismo-jardueraren sustapena	x				
Merkataritza ibiltaria	x				
0-3 urtekoen ikastetxeak		x			





### 3. gehigarria. Arau-esparrua

Iruñeko Udalari 2022ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

#### *Estatuko arauak*

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.
- 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeari dagokionez aplikatzekoak diren xedapenak, sektore publikoaren zerbitzuko langileria-gastuen arloan.

#### *Foru araudia eta toki erakundekoa*

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.
- Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270 eta 272 Foru Dekretuetan ezartzen da, bai eta Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura onesten duen irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuan ere.
- 1998ko erregelamendu organikoa
- Udalaren 2021eko aurrekontuaren exekuzio oinarri luzatuak.
- Udal-ordenantzak.





#### 4. gehigarria. Salbuespenei buruzko informazio gehigarria

Udalean mugaeguneratutako kontratuak, udal-arloetako idazkari teknikoek bidali diguten informazioaren arabera, honako hauek dira:

Kontratuaren xedea	Alorra	Gastua (2022)	Muga-eguna	Adjudikazioa
Civioxetako jardueren kudeaketa eta programazioa	Kultura eta Berdintasuna	2.045.630	2022/03/31	
Civiox sareko eraikinen garbiketa	Kultura eta Berdintasuna	437.760	2018/12/31	
Emakumeei IKTen inguruko informazioa, prestakuntza eta aholkularitza emateko programa	Kultura eta Berdintasuna	28.467	2021/05/31	2022/04/04
Familia esku-hartzea haurren sustapen, arreta eta babesaren arloan	Gizarte zerbitzuak	728.656	2021/12/31	2023/05/30
Familia esku-hartzea emakumeen eta haien seme-alaben arreta integralaren arloan	Gizarte zerbitzuak	363.402	2021/12/31	2023/05/31
Etterik gabeko pertsonen udal-zerbitzuaren kudeaketa	Gizarte zerbitzuak	569.543	2020/12/31	2022/06/06
Udaltzaingoaren furgioen alokairua	Herritarren segurtasuna	4.143	2021/05/09	2022/01/24
Aranzadi KEn eta S. Jorgen atezaintza, mantentze-lan, garbiketa eta sorospenaren kudeaketa	Kirola	270.552	2022/09/15	2023/05/30
Zerbitzu energetikoak eta udal-eraikin eta -igogailuen mantentze-lanak	Hiri-kontserbazioa	8.453.395	2019/12/31	
Energia-hornidura Civioxetan eta kiroldegietan	Hiri-kontserbazioa	1.007.768	2022/03/31	
Argiteria publikorako eta semaforoetarako energia elektrikoa	Hiri-kontserbazioa	1.806.003	2022/07/31	2023/09/27
B, C eta D eremuetako berdeguneen mantentze-lanak	Hiri-kontserbazioa	1.942.736	2022/03/31	2023/09/04
Bide garbiketa (1. sorta)	Hiri-kontserbazioa	2.940.659	2022/08/31	
Bide garbiketa (2. sorta)	Hiri-kontserbazioa	121.257	2022/10/31	
Iturri apaingarrien garbiketa (3. sorta)	Hiri-kontserbazioa	112.336	2022/06/14	
Aldamioak lagatzeko kontratua	Hirigintza	119.640	2018/12/31	
Sarasate pasealekuko komun garbiketa	Osasuna	48.809	2020/07/31	2023/02/06
<b>Guztira</b>		<b>21.000.756</b>		

Erakunde autonomoetan, honako hauek dira mugaeguneratutako kontratuak:

Kontratuaren xedea	Erakunde autonomoak	Gastua (2022)	Muga-eguna
Bulegoen eta JM eskolaren garbiketa	Haur Eskolak	26221	2005/06/30
Bulegoen garbiketa	Hirigintzako Geroztzia	22.210	2009/12/31
Lan-aholkularitza	Hirigintzako Geroztzia	3.325	2003/12/31







## 5. gehigarria. Erregulartasun-fiskalizazioko beste ohar eta aurkikuntza batzuk

Ondoren, ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitezkeen informazio gehigarriren bat ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren eta haren mendeko erakundeen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

### 5.1 Aurrekontu orokorra eta finantzen egoera bateratua

Udaleko Osoko Bilkurak ez zuen onetsi 2022ko ekitaldirako aurrekontu orokorra. 2021eko abenduaren 31ko Alkatetzaren Erabakiaren bidez, Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2021eko aurrekontuaren luzapena onetsi zen, gastu eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspen hauekin:

Entitatea	Hasierako aurreikuspenak
Iruñeko Udala	200.012.328
Hirigintzako Gerentzia	10.760.900
Haur eskolak	9.591.843

Udalaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu bateratuak, bateratze-doikuntzen ondoren, 208,36 milioiko gastu eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspena zuen.

Aurrekontu-aldaketek 63,75 milioi jo zuten, hasierako kredituen ehuneko 31, eta horietatik 21,25 milioi 2021eko abenduaren 31n gastu orokorretarako zegoen diruzaintza-gerakinarekin finantzatu ziren. Gastu-aldaketen ehuneko 66 kapital-gastuei dagokie, eta ehuneko 34, funtzionamendu-gastuei.

### *Aurrekontu-likidazioa*

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioak eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketak honako adierazle hauek ditu:

Adierazleak	2021	2022	Aldea (%)
Guztizkoa, aitortutako eskubide garbiak	241.660.051	270.093.565	12
Guztizkoa, aitortutako betebeharrak	255.110.762	250.626.509	-2
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	222.623.226	229.736.244	3
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	193.424.046	208.035.803	8
Kapitaleko diru-sarrerak	18.905.933	25.186.251	33
Kapitaleko gastuak	51.314.418	34.376.651	-33
Saldo ez-finantzarioa	-3.646.256	12.112.870	432

Aurreko datu horiek kontuan hartuz, honako hauek azpimarratu behar ditugu:





- 2022an, aitortutako eskubide bateratuak 270,09 milioi ziren.

Aitortutako eskubideen ehuneko 41 transferentzia arruntei dagokie, ehuneko 26 zergei, eta ehuneko 17 tasei, prezio publikoei eta bestelako diru-sarrerari.

2022ko eskubide aitortuak aurreko ekitaldikoak baino % 12 handiagoak izan ziren. Aipagarria da 15 milioiko finantza-pasiboak hitzartu zirela, eta zuzeneko zergak ehuneko 12 handitu zirela.

- 2022an, gastu bateratuak 250,63 milioi izan ziren.

Aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 43 langileria gastuei dagokie, ehuneko 33 ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntei, eta ehuneko 12 inbertsioei.

2022an aitortutako betebeharrak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko bi txikiagoak izan ziren. Aipagarria da inbertsioen ehuneko 34ko beherakada, eta, bestalde, ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten ehuneko 12ko igoera.

- 2022an lortutako aurrekontuko saldo ez finantzarioa 12,11 milioi izan zen, eta, aldiz, aurreko ekitaldian 3,65 milioiko saldo negatiboa egon zen. Aldaketa horren arrazoia da kapitaleko diru-sarrerak 6,28 milioi handitu direla eta kapitaleko gastuak 16,94 milioitan murriztu direla.

Taula honetan ageri dira Udalaren eta haren erakunde autonomoen gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan, eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

Gastuaren izaera	%		Finantzaketa iturria	%	
	2021	2022		2021	2022
Langileak	41	43	Tributu bidezko diru-sarrerak	38	36
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	29	33	Transferentziak	51	46
Transferentziengatiko gastuak	8	9	Ondare diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	11	12
Inbertsio errealak	18	12	Finantza-pasiboak		6
Finantza-zama	4	3			
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>		<b>100</b>	<b>100</b>

Aipagarria da ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten pisua ehuneko lau igo dela 2021eko ekitalditik 2022kora, eta langileria-gastuena, berriz, bi puntu; inbertsioak, aldiz, ehuneko sei murriztu dira.

Finantzaketa-iturri nagusiak transferentziak eta tributuak dira, diru-sarrera guztien ehuneko 46 eta 36, hurrenez hurren. Horrez gain, 2022ko ekitaldian, 2021ean ez bezala, pasibo finantzarioak hitzartu ziren; hain zuzen, aitortutako eskubide guztien ehuneko sei.



*Finantza-egoera bateratuaren azterketa:*

Adierazlea	2021	2022	Aldea (%)
Aurrezki gordina	29.199.180	21.700.441	-26
Finantza-zama	10.224.482	8.044.636	-21
Aurrezki garbia	18.974.698	13.655.805	-28
Finantza-zamaren indizea	% 5	% 4	-24
Aurrezki gordinek diru-sarrera arrunten gainean zenbat egiten duten %	13_	9_	-28
Zor bizia	36.171.121	43.523.656	20
Zorpetze maila (zor bizia/diru-sarrera arruntak)	% 16	% 19	17
Aurrekontu-emaizta doitua	3.859.435	26.062.465	575
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	28.561.297	35.615.886	25
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 38	% 36	
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dau-den zordunak) *100	% 46	% 44	

**Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:**

Aurrezki gordin bateratua 21,7 milioi izan zen, 2021ean baino ehuneko 26 gutxiago. Jaitsiera horren arrazoia da funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arruntak baino proportzio handiagoan igo direla, ehuneko zortzi eta ehuneko bi, hurrenez hurren.

2022an, aurrezki garbi bateratua 13,66 milioi izan zen. Horrek adierazten du Udalak eta haren erakunde autonomoek baliabide arrunten soberakina dutela, behin funtzionamendu-gastuak eta finantza-karga ordainduta.

2022ko abenduaren 31n, zor bizia 43,52 milioi da, eta horietatik 40,55 milioi Iruñeko Udalarari dagozkie, eta 2,97 milioi Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari.

2022ko abenduaren 30ean, Udalak bi mailegu hitzartu zituen, 15 milioikoak guztira, sei hilabeteko euriborreako interes aldakorrekiko eta 15 urteko eperako, 2 urteko gabealdiarekin, 15,47 milioi jotzen zuten inbertsioak –Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 3an hartutako erabakiaren bidez onetsiak– finantzatzeko.

Maileguei dagokienez, aurreikusitako 25 milioien aldean, 15 milioi hitzartu ziren exekutututako inbertsioak finantzatzeko eta "2022ko itxieran gastu orokorretarako gerakin-maila handi bati eusteko, oso beharrezkoa 2023ko aurrekonturako aurreikusitako luzapen-egoeran".

2022ko uztailan, Fitch Rating kreditua sailkatzeko agentziak epe luzearako zorrari A maila perspektiba egonkorrekin kalifikazioa eman zion.

• 2022an lortutako aurrekontu-emaizta doitua 26,07 milioi izan zen, eta 2021ean, aldiz, 3,86 milioi. Aldaketa esanguratsu horren arrazoia da aitortutako eskubideak ehuneko 12 handitu direla, aitortutako betebeharrak ehuneko bi murriztu direla eta





diruzaintzako gerakinaren 14,20 milioi erabili direla 2022ko ekitaldiko betebeharrak finantzatzeko, 2021ean baino 8,39 milioi gehiago.

• 2022ko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 35,62 milioi da, 2021ekoa baino ehuneko 25 handiagoa, batez ere 2022an hitzartutako maileguengatik; horrek adierazten du likidezia dagoela hurrengo ekitaldietan aurrekontu-aldaketak finantzatzeko.

19,30 milioi kobrantza zalantzarriko zorduntzat jo dira, hau da, 2022ko abenduaren 31n kobratzeke zeuden aurrekontu-eskubideen ehuneko 44.

Azken finean, 2022ko finantza-egoera bateratua saneatua da; funtzionamendu-gastuei eta finantza-kargari aurre egiteko baliabide arrunt nahikoak sortu dira. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 35,62 milioi da, eta horietatik 15 milioi 2022an hitzartutako zorpetzeari dagozkio.

Dena den, 2022ko abenduaren 31n, zor bizia 43,52 milioi da, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 20 handiagoa. Gainera, funtzionamendu-gastuak diru-sarrerara arruntak baino proportzio handiagoan igo dira, eta kapitaleko gastuak, berri, 2021eko ekitaldikoak baino ehuneko 33 txikiagoak izan dira.

Nabarmenezkoa da 2022ko ekitaldiko gastuen zenbateko esanguratsua, bai gastu arruntena, bai kapitaleko gastuena, diruzaintzako gerakinarekin finantzatua, 14,20 milioi, eta, ondorioz, diruzaintzako gerakin likidua murriztu da.

#### *Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna*

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, tokiko administrazio publikotzat hartzen dira, Nazio eta Eskualde Kontuen Europako Sistemaren arabera, honako erakunde hauek: udala bera, haren erakunde autonomoak, merkatuz kanpoko udal-sozietate publikoak (Iruña Centro Histórico-Iruña Biziberritzen SA, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua SLU eta Animsa) eta Gayarre Antzokia Fundazioa.

Pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Europako Batzordeak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula orokorra aplikatu zuen 2020an, eta luzatu egin zuen 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako.

2021eko irailaren 13an, Kongresuaren Osoko Bilkurak ikusi zuen pandemiaren ondorioz Espainia ezohiko larrialdi-egoera batean zegoela, eta horrek 2022an zerga-arauak etetea ekarri zuela, eta indarrik gabe utzi zirela aurrekontu-egonkortasunaren, gastu-arauaren eta finantza-jasangarritasunaren helburuak.

Mantendu egiten dira zorpetze-eragiketak baimentzeko araubidea eta merkataritza-zorren iraunkortasuna betetzeko betebeharrak.





- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren ondorioetarako administrazio publikotzat jotako entitateen multzoak 48,15 milioiko zor bizia zuen 2022ko abenduaren 31n (40,54 milioi Udalak; 2,98 milioi Hirigintzako Gerentziak, eta 4,63 milioi Pamplona Centro Histórico-Iruña Biziberritzen SAK). Diru-sarrera arrunten ehuneko 20,69ko zorpetze-maila da, zorpetze-eragiketak baimentzeko ezarritako ehuneko 75eko mugaren azpitik, eta aurrezki garbi positiboa zuen.

- Toki-erakundeek sinatzen dituzten kreditu-eragiketek finantza-zuhurtasunaren printzipioa bete behar dute, eta horrek esan nahi du zenbait baldintza bete behar dituztela haien arriskua eta kostua minimizatzen.

2022an hitzartutako zorpetze-eragiketen gehieneko kostuak, guztira 15 milioioak, ez du gainditu Estatuaren finantzaketa-kostua eragiketaren batez besteko epean 75 oinarrizko puntu gehituta.

- Merkataritza-zorraren iraunkortasunari dagokionez, eta kontu-hartzaileak jakinarazi duenez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ez du gainditu berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako 30 eguneko gehieneko epea, honako taula honetan ikus daitekeen bezala:

Hiruhilekoa	Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea
Lehenengoa	23,33
Bigarrena	18,58
Hirugarrena	27,49
Laugarrena	24,64

## 5.2 Iruñeko Udala

### 5.2.1 Barne-kontrola

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak udalaren kudeaketa ekonomikoaren barne-kontrola ezartzen du, hiru adieratan: kontu-hartzailetza funtzioa, finantza-kontrolaren funtzioa eta eraginkortasunaren kontrolaren funtzioa.

Foru Komunitatearen esparruan, ez da erregelamenduz garatu barne-kontrolaren erregulazioa. Ez da hori gertatu estatuaren esparruan; izan ere, Toki sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi zen.

Udalaren barne-kontrolari dagokionez, funtzio kontu-hartzailea baino ez da gauzatzen, ez finantza-kontrola (udalaren mendeko erakundeetan egiten dena, kontuen eta legezketasunaren auditorien bidez), ez eraginkortasunaren kontrola.





Kontu-hartzailletza lana, esku hartutako gastu-espeditente guztietan agertzen den bezala, gastua onartzen duen organoa eskuduna dela eta kontabilizatzen den partida egokia dela egiaztatzean datza. Egiaztapen horiek gastu guztiei dagokieenez egiten dira, langileriakoak salbu, horiek ez baitira fiskalizatzen.

Kontu-hartzailletzak ez ditu langileria gastuak fiskalizatzen; izan ere, kontu orokorrari buruzko kontu-hartzailearen txostenaren arabera, aldez aurreko fiskalizazioa egin ahal izateko, onartu aurretik partida edo lotura juridiko bakoitzari aplikatutako gastuaren kuantifikazioa eduki beharko litzateke. Langileria gastuek 2022an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 39 egiten dute, eta horiek fiskalizatzea derrigorrezkoa eta beharrezkoa da.

Bestalde, Osoko Bilkurak ez du zehaztu zein alderdi –kudeaketa-prozesuan duten eragina dela eta– egiaztatu beharko liratekeen. Esku-hartze mugatuaren xedea ez da gero lagin bat hartzea eta esku-hartze oso bat egitea; beraz, ez da txosten idatzi bat egiten, Osoko Bilkurara bidali beharko litzatekeena organo kudeatzaileek, kasua bada, ateratako ondorioekin eta oharrekin.

Egiaztatu dugunez, jasota daude esku-hartzearen barne-txostenak, sinatu gabeak eta espeditentean sartu gabeak, zeinetan beste alderdi batzuk aztertzen baitira, organoaz eta partidaz gain, baina espeditentean ez da adierazten zer jarduketa egin diren.

Diru-sarrerak ez dira fiskalizatzen.

Kontu-hartzailletzako organoak ez du eragozpenik adierazi kontu-hartzailetzako eginkizuna betetzean.

*Gure gomendioak:*

- *Osoko Bilkurak adostu dezala zein alderdi, kudeaketa-prozesuan duten eragina dela eta, egiaztatu behar diren kontu-hartzailletzako eginkizun mugatuan.*
- *Beharrezkoak diren barne-prozedurak egokitzea, Kontu-hartzailletzak langileria gastuen fiskalizazioa egin ahal izan dezan*

### 5.2.2 Aurrekontuaren betearazpena

2022an udalean aitortutako betebeharrak 247,11 milioi izan ziren. Kapitulu ekonomikoen arabera, honako hauek nabarmentzen dira: ehuneko 39 langileria gastuak dira; ehuneko 33 ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak; ehuneko 13 transferentzia arruntak, eta ehuneko hamar inbertsioak.

Behin betiko kredituen ehuneko 95 exekutatu ziren, eta kapitaleko gastuen exekuzio-maila ehuneko 77 izan zen.





Sailkapen funtzionalari dagokionez, honako gastu-politika hauek nabarmentzen dira: “herritarren segurtasuna eta mugikortasuna” (% 18), “hezkuntza” (% 11), “etxebizitza eta hirigintza” (% 10), “pentsioak” (% 10) eta “gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena” (% 9).

2022an aitortutako betebeharrak 2021ean aitortutakoak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren, batez ere ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak ehuneko 12 igo zirelako eta transferentzia arrunten ondoriozko gastuak ehuneko 17 igo zirelako. Aipagarria da pasibo finantzarioetan egindako gastuak ehuneko 26 murriztu zirela.

2022an udalean aitortutako eskubideak 266,51 milioi izan ziren. Kapitulu ekonomikoen arabera, honako hauek nabarmentzen dira: ehuneko 42 transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak dira; ehuneko 27 zergak, eta ehuneko 16 tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.

2022an aitortutako eskubideak 2021eko ekitaldikoak baino ehuneko 16 handiagoak izan ziren, batez ere 15 milioiko zorpetzea hitzartu zelako eta Europar Batasuneko 9,9 milioiko dirulaguntzak jaso zirelako.

### *5.2.3 Langileria gastuak*

Udalaren langileria gastuak 95,83 milioi izan ziren, 2021ean baino ehuneko bat gehiago. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 99 izan zen. 2022ko ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 39 egiten dute.





## Hauxe da horien sailkapen ekonomiko eta organikoa:

Kontzeptu ekonomikoa	ABG, 2021	ABG, 2022	Aldea	Aldea (%) 22-21
Gobernu-organoen ordainsariak	1.057.181	1.102.699	45.518	4
Behin-behineko langileen ordainsariak	2.317.950	2.267.008	-50.942	-2
Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	30.626.137	31.339.484	713.347	2
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	12.806.708	13.250.229	443.521	3
Funtzionarioen beste ordainsari batzuk	2.549.235	3.505.077	955.842	37
Lan-kontratudun finkeen ordainsariak	1.228.760	1.485.556	256.796	21
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	6.426.170	3.783.647	-2.642.523	-41
Lan-kaleratzeen kalte-ordainak	0	71.089	71.089	
Gizarte-kuotak	13.635.884	13.986.626	350.742	3
Pentsioak eta gizarte-prestazioak	23.189.483	24.255.350	1.065.867	5
Langileen gizarte gastuak	298.810	291.566	-7.244	-2
Famila-osagarria	488.716	495.369	6.653	1
<b>Guztira</b>	<b>94.625.034</b>	<b>95.833.699</b>	<b>1.208.665</b>	<b>1</b>

Sailkapen organikoa	ABG, 2021	ABG, 2022	Aldaketa	22/21 al- dea (%)
Alkatetza	685.815	684.682	-1.133	-0,2
Gobernu estrategikoa, merkataritza eta turis- moa	2.296.415	2.379.935	83.520	4
Ogasuna	2.668.416	2.748.493	80.077	3
Giza baliabideak	27.194.017	28.484.363	1.290.346	5
Hirigintza, etxebizitza eta osasuna	4.770.299	5.053.639	283.340	6
Proiektuak, obrak, mugikortasuna, jasangarri- tasuna	1.672.690	1.836.933	164.243	10
Hiri-kontserbazioa	3.793.585	3.817.226	23.641	0,6
Kultura eta berdintasuna	2.277.924	3.297.801	1.019.877	45
Herritarren segurtasuna	23.008.050	24.855.126	1.847.076	8
Gizarte zerbitzuak	17.139.469	13.053.259	-4.086.210	-24
Komunitate-ekintza, lankidetzeta eta kirola	2.387.594	2.599.789	212.195	9
Hezkuntza, partaidetza eta gazteria	6.730.761	7.022.452	291.691	4
<b>Guztira</b>	<b>94.625.034</b>	<b>95.833.699</b>	<b>1.208.665</b>	<b>1</b>

Langileria gastuen ehuneko 50 funtzionarioen ordainsariei dagokie, ehuneko 25 pentsioei eta gizarte-prestazioei, eta ehuneko 15 gizarte-kuotei. Sailkapen organikoari dagokionez, gastuaren ehuneko 30 Giza Baliabideei dagokie –horri egozten zaizkio pentsioak eta gizarte-prestazioak–, ehuneko 26 Herritarren Segurtasunari eta ehuneko 14 Gizarte Zerbitzuei.

2022ko ekitaldiko langileria gastuak ehuneko bat, 1,21 milioi, igo dira 2021eko ekitaldiarekin alderatuta. Honako arrazoi hauengatik gertatu da nagusi:

- 2022ko ekitaldirako onetsitako ehuneko 3,5eko soldata-igoera.
- Pentsioen eta gizarte-prestazioen gastuen igoera, % 1,6ko atzerapenen eta ehuneko 2,5eko ordainsari-igoeraren ondorioz.







- Aldi baterako lan-kontratudun langileen ordainsarien eta gizarte-zerbitzuen alorreko langileria gastuen kontzeptua murriztu egin da 2021eko azaroan Iruñeko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua (aurreantzean ELZ) udal-sozietatean udaleko 198 pertsona subrogatu zirelako, eta 2022ko abendutik aurrerako ondorioekin, 178 Udalaren plantillan sartu ziren berri.

- «Funtzionarioen beste ordainsari batzuk» kontzeptuaren eta kultura eta berdintasun alorreko gastuaren igoera 2021ean egin ez ziren San Fermin festei lotutako ordainsariei zor zaie, hala nola jaiegunak eta aparteko orduak, besteak beste.

Honako hauek dira langileria gastuen fiskalizaziotik atera ditugun ondorioak:

- Ez da alde aurreko fiskalizazioa egin, ezta langileria gastuen ordainketaren kontu-hartzailetza materiala ere.

- Udalak ez du ezarrita prozedura eraginkor eta aldizkakorik erretiro-, alarguntza- eta zuztasun-pentsioen langile onuradunek baldintzak betetzen dituztela ezagutu eta kontrolatzeko. Pentsio-gastuak 23,87 milioi izan ziren 2022an, eta 843 pentsiodunei dagokie.

Aurrekontua betearazteko oinarrietan honako hau ezartzen da: "erretiratuei eta pentsiodunei eskatuko zaie, gutxienez, beren bizi-agiria edo NANA aurrez aurre aurkez dezatela –egiaztapen bereziak eragotzi gabe–, aurtengo maiatzaren 1etik 31ra bitartean. Betekizun hori bete ezean, ez duzue diru-kopuru gehiagorik jasoko zuen kontu korrontean edo libretan". 2020tik, ez da eskatu betekizun hori.

- Egiaztatu dugu hautetsiei ordaindutako ordainsariak –hurrengo taulan jasok– zuzenak direla eta justifikatuta daudela.

	Kargu-kopurua	Aleko prezioa	Zenbatekoa, guztira
Alkatea	1	70.259	70.259
Arduraldi eskusiboa duen zinegotzi ordezkaria	8	54.974	439.789
Zinegotzi ordezkaria ez den zinegotzia, arduraldi eskusibokoa	8	41.117	328.933
Zinegotzi ordezkaria ez den zinegotzia, arduraldi partzialekoa (2/3)	6	27.411	164.467
Zinegotzi ordezkaria ez den zinegotzia, arduraldi partzialekoa (% 50)	1	20.558	20.558
Bertaratzeak	3	226	36.421
Gradua eta bosturtekoa			41.159
Bestelako kontzeptuak			1.113
<b>Guztira</b>	<b>27</b>		<b>1.102.699</b>

- Egiaztatu dugu kontabilizatutako langileria gastua bat datorrela nominen aplikazioaren arabera kalkulaturako eta ordaindutako gastuarekin.





Maiatzeko nominako 13 kontzepturen (oinarrizko soldata, osagarriak eta antzinasuna) 5.242 erregistro berrikusi ditugu; guztira 2,69 milioi, jarduneko 1.247 pertsonari dagozkienak, ordaindutako kontzeptuak plantilla organikoko lanpostuari dagozkion egiaztatzeko. Hauexek dira ondorioak:

Ordaindutako ordainsari-kontzeptuak plantillan sartutako lanpostuei dagozkie, plantilla organikoan jasotzen ez diren honako osagarri hauek izan ezik – baina, oro har, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakietan edo udal-ebazpen edo -txostenetan oinarrituta daude–:

a) Hamar pertsonak enplegu publikoaren hobekuntzagatik jasotako % 35eko lanpostu-osagarria. Plantillan jasota dagoen osagarria ehuneko 27,07 da.

b) 24 posturi esleitutako “lanpostuaren eginkizunengatik osagarria” izeneko osagarriak.

c) Bulego estrategikoko zuzendariaren lanpostuaren arduraldi eskusiboagatik ehuneko 55eko osagarria.

Era berean, plantillan jasota badaude ere, musika-eskolako langileei eta lan-tegi-eskolako monitoreei ordainsariak ordaindu zaizkie, “irakaskuntza-osagarri” gisa. Osagarri hori Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ezarrita dago Foru Komunitateko Administrazio-oko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioentzat.

### *Plantilla organikoa*

Udalaren Osoko Bilkurak ez zuen onetsi 2022ko ekitaldirako plantilla organikoa.

Udalaren 2021eko plantillak 1.446 lanpostu zituen. 2022ko abenduaren 1ean, Osoko Bilkurak 2021eko plantilla aldatzea onetsi zuen, ELZko 178 lanpostu sartze aldera, egun horretatik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betetzeko.

Beraz, 2021erako onartutako eta 2022an aldatutako plantillak 1.624 lanpostu ditu, honako araubide juridiko honekin:

Araubidea	Lanpostuak
Behin-behineko langileak	27
Funtzionarioak	1.394
Lan-kontratadun langileak	203
<b>Guztira</b>	<b>1624</b>





### Hauxe da lanpostu horien egoera:

Kontzeptua	Udala
Plantillako lanpostuak	1.624
Beteta	1.029
Hutsik	595
Bete diren lanpostu hutsak	477
Bete gabeko lanpostu hutsak	118
Lanpostu hutsak (%)	% 37
Bete diren lanpostu hutsak (%)	% 80
Behin-behinean bete diren lanpostuak (%)	% 32

Lanpostu guztien ehuneko 37 hutsik zeuden, eta horietatik ehuneko 80 beterik zeuden.

Tokiko Gobernu Batzarrak bulego estrategikoko zuzendariaren lanpostuaren aldaketa erabaki zuen, baina hura ez zen izapidetu plantilla organikoa aldatzeko ezarritako prozeduraren arabera.

2022ko azaroaren 25ean, Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Nafarroako Administrazio Auzitegian, Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak lanpostuak aldatzeari buruz hartutako erabakiaren aurka. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ustez, plantilla organikoa onestea Osoko Bilkuraren eskumena da, eta lanpostuen zerrenda Estatuko legeriaren berrezko tresna juridikoa da, Nafarroako foru legerian jasota ez dagoena, eta zati batean baietsi zuen gora jotzeko errekurtsua. Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusian Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen aurka, baina errekurtsua ezetsi eta Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpena berretsi zuten. Ebatzi gabe dago Udalak aurkeztu zuen kasazio-errekurtsu bat, lanpostuen zerrenda/plantilla organikoa onartzeko eskumenei buruzkoa.

#### *Enplegu-eskaintza publikoa (EEP)*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko maiatzaren 12an 192 lanpostuko EEP bat onetsi zuen –maiatzaren 19ko NAO n argitaratua–, 2022ko ekainaren 1a baino lehen aldi baterako enplegua egonkortze aldera, Enplegu publikoan aldi batera-kotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea-rekin bat. Gerora, EEP hori zuzendu zuten, eta lanpostu bat gehiago sartu zen.

Lege horrekin bat, EEPan sartuko dira aurrekontu-zuzkidura duten eta 2020ko abenduaren 31ren aurreko hiru urteetan gutxienez aldi baterako eta modu jarraituan beteta dauden egiturazko lanpostuak.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izanen da, eta, salbuespen gisa, merezi-mendu-lehiaketa aurreko baldintzak betetzen dituzten eta 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen aldi baterako eta etenik gabe beteta dauden lanpostuetarako.





Hautaketa-prozesua amaitzean, 2024ko abenduaren 31 baino lehen, aldi baterako betetze-tasak egiturazko plazen ehuneko zortzi baino txikiagoa izan beharko du. 2022an, udalean behin-behinekotasun tasa ehuneko 32koa zen.

20/2021 Legean baimendutako egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoan sartutako plaza kopurua identifikazioa eta zenbaketa ez zen prozesu automatizatu bidez egin; aitzitik, informazio hori zehaztu zen, lanpostu bakoitzerako, egindako kontratu guztiak eta kontratatutako pertsona guztiak eskuz egiaztatuta, datak eta betetze-denbora ezagutze aldera. Prozesu hori langileen ordezkari-organoeekin negoziatu zen (negoiazio-mahaiarekin eta lan-kontratudun langileen batzordearekin).

Aldaketa nagusien artean, zenbait pertsonaren finkotasuna aitortzen duten epaiak direla-eta aldatu zen EEPa, bai eta 2022ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin udal-plantillan sartutako ELZko lanpostuak sartzeko ere.

2022. urteko egonkortzeko EEPak 265 lanpostu jasotzen ditu guztira, onartutako aldaketen ondoren, eta behin sartuta 2020an onetsitako egonkortzeko EEParen 64 lanpostuak. Merezimendu-lehiaketa eta oposizio-lehiaketa bidez hornituko dira, honako taula honetan adierazten den bezala:

	Lanpostuak, Merezimendu-lehiaketa	Oposizio-lehiaketa
Egonkortzea (20/2021 Legea)	193	25
"2020ko eta 2021eko EEPetan sartutako lanpostuak"	64	4
<b>Guztira</b>	<b>257</b>	<b>29</b>
Aldaketa	-12	-1
ELZko langileen aldaketa	20	13
<b>EEPa, aldaketen ondoren</b>	<b>265</b>	<b>41</b>

Giza Baliabideen zuzendariak ebazpen bat onetsi zuen, 2022ko uztailko NAOn argitaratua, aldi baterako enplegua egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoetan sartutako lanpostuetarako sarbide-sistema ezartzekoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko azaroaren 25ean onetsi zuen egonkortzeko EEPetan eskainitako 265 lanpostu guztien deialdia, legean ezarritako 2022ko abenduaren 31 baino lehen. 2023ko irailaren 30eko datarekin, 91 lanposturendako hautapen-prozedurak abiatu dira, 71 merezimendu-lehiaketa bidez, eta 20 oposizio-lehiaketa bidez.

Horrez gain, Tokiko Gobernu Batzarrak 41 lanpostu ordezteko EEP bat onetsi zuen 2022ko azaroaren 25ean –2022ko abenduaren 15eko NAOn argitaratua–, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legean baimendutako ordezte-tasen arabera. Eskainitako lanpostuetako batek ez zituen betetzen aipatu legean ezarritako betekizunak.





### *Langile finkoak hautatzeko deialdiak*

Hainbat lanpostu betetzeko lau deialdi aztertu ditugu. Honako hauek dira azterketaren ondorio nagusiak:

- Prozesuak berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioen arabera izapidetu dira.

- Plantilla organikoan ez daude jasota instalazioen funtzionamenduko ofizialen 24 lanpostu, barne-igoerako txanda murriztuaren bidez deituak. 2017an “lanpostu-gehikuntzarik gabeko sustapen-deialdiak egitea” adostu zen, eta izendapena 2022an egin zen.

- Udaltzaingoko 14 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdiari dagokionez, gabeziak ikusi ditugu prozesuaren dokumentazioan, hala nola epaimahaiak hartutako erabaki guztiak ez daudela aktan jasota.

*Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:*

- *Ezartzea erretiro-pentsioen ordainsariak jaso behar dituzten langile pasiboen urteroko egiaztapen efektiborako prozedurak.*

- *Onestea eta argitaratzea ekitaldi bakoitzeko plantilla organikoa eta horren aldaketak, legez ezarritako prozeduraren arabera.*

- *Plantilla organikoan lanpostu guztiak zerrendatzea, plantilla gauzatzeko arau osagarrietan jasotakoak barne, bakoitzak dituen ordainsari-osagarriak aipaturik.*

- *"Irakaskuntza-osagarria" deritzona egokitzea Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean araututako osagarrietara.*

- *EEPetan sartutako lanpostuak zehazteko prozesu guztiak behar bezala dokumentatzea.*

- *Plantilla organikoan sartzea prozedura murriztuaren bidez deitutako plazak, deialdia onartu aurretik.*

### *5.2.4 Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak*

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 80,78 milioi izan ziren, 2022ko ekitaldian aintzatetsitako betebeharrak guztien ehuneko 33, eta behin betiko kredituen ehuneko 96 gauzatu ziren. 2021ean aitortutakoekin alderatuta, ehuneko 12 igo dira; hau da, 8,35 milioi.





Honako hauek dira gastu arrunt nagusiak eta horien aldaketa aurreko ekitaldi-arekiko:

Kontzeptua	ABG, 2021	ABG, 2022	Aldaketa	2022/2021 aldea (%)
MUGAren kudeaketa-kontratua	8.762.757	9.865.494	1.102.737	13
Bide publikoaren garbiketa-kontratua	9.544.679	9.630.750	86.071	1
Erabilera publikoko ondasunen mantentze-lanak eta konponketa	6.649.531	6.711.206	61.675	1
Eraikinen garbiketa-kontratuak	5.733.617	5.731.065	-2552	0
Kontratuak, azterlanak eta lan teknikoak	5.138.703	5.547.062	408.359	8
Eraikinen gas-kontsumoa	2.390.786	4.529.640	2.138.854	89
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.535.266	3.706.848	1.171.582	46
Zerbitzu informatikoen enkargua	3.633.462	3.458.445	-175.017	-5
Kultur jardueren kudeaketa	2.661.628	3.047.867	386.240	15
Bestelako gastu askotarikoak	2.883.325	3.045.338	162.013	6
Gizarte-jardueren kudeaketa	2.831.240	2.914.475	83.235	3
Eraikinen energia elektrikoa	1.993.124	2.852.767	859.643	43

2021arekin alderatuta gehien aldatu diren gastu arruntak honako hauek izan dira: eraikinen gas-kontsumoa, argiteria publikoa, MUGAren kudeaketa-kontratua eta eraikinen energia elektrikoko kontsumoa. Hornidura-gastuak igo dira prezioen eta MUGAren kudeaketaren igoeraren ondorioz, aparkatzeko gune arautua zabaldu baita. Sanferminetako gastuak –2021ean ez ziren egin– 1.012.592 euro izan ziren 2022an.

Honako gastu hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	ABG, 2022
Bilketa exekutiboaren kudeaketa	857.069
Hitzarmena Foru Ogasunarekin	511.580
Hurrei arreta eskaintzea	403.261
Eguberritako argiteria eta apainketa	192.444
Epaia betearaztea	182.923
Hitzarmena Nasuvinsarekin Txantrean berriztatze energetikoa egiteko	173.658
Banku-zerbitzuak	142.296
Gastu juridikoak	49.435
Kalte-galerengatiko interes legalak	14.930

Gastuak onartuta daude, justifikatuta, esleitutako kontratuan ezarritakoaren arabera fakturatuta, esku hartuta, behar bezala kontabilizatuta eta epean ordainduta, baina hobetu beharreko alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Tokiko Gobernu Batzarrak 2019an onetsi zuen Udala atxikitzea Nafarroako Foru Ogasunaren eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioaren artean 2019ko martxoaren 26an sinatutako Lankidetzarako Esparru Hitzarmenari, Ogasunaren eta Nafarroako udalerrien artean informazioa trukatzeko eta zerga-kudeaketan eta -ikuskapenean lankidetzan aritzeko.





Hitzarmen horren arabera, Tracasa Instrumental SL sozietate publikoak –Foru Komunitateko Administrazioaren ente instrumentala– laguntza teknikoa ematen dio udalari katastroaren mantentzean, tributuen kudeaketan eta ikuskaritzan eta balorazio txostenarekin lotutako jarduketetan. 2022rako adostutako kostu maximoa, egindako orduen arabera, 750.000 euro izan zen. 2022an kontabilizatutako 511.580 euroko gastua urteko lehen hiru hiruhilekoei dagokie.

Ez dago jasota 2022ko ekitaldian emandako laguntza teknikoan benetan egindako orduak kontrolatzeko prozedurarik.

•Nasuvinsa sozietate publikoarekiko 173.658 euroko gastua Txantrea auzoan berriztatze energetikoari dagokionez egindako jarduketei dagokie. Horri dagokionez, Udalak eta Nasuvinsa sozietate publikoak honako lankidetzak-hitzarmen hauek sinatu zituzten:

Hitzarmenaren data	sinaduraren data	Aurreikusitako jarduketaren zenbakeoa	Jarduketaren gauzatze-aldia.	Amaierako balantzearen txostena aurkezteko eguna
2019ko uztailaren 5a		96.000	2019ko uztailaren 5etik 2020ko uztailaren 5era	2021eko otsailaren 17a
2021eko abenduaren 28a		77.658	2021eko uztailaren 6tik 2022ko uztailaren 6ra	2022ko uztailaren 6a

Hauek dira, besteak beste, Nasuvinsak egin behar dituen jarduketak: auzoko jendearentzako jarduketa-bulegoa mantentzea teknikari egokiekin; berriztatze energetikoko prozesuen dinamizazioan eta parte-hartzean laguntzea, eta jabeen erkidegoei laguntzea.

Bi hitzarmenetan ezartzen denez, indarraldia amaitu ondoren, Nasuvinsak amaierako balantze-txosten bat aurkeztuko du, lortutako emaitzak, konprometitutako jarduketak eta, azkenik, agindutako jarduketak eta egindako gastuen justifikazio ekonomikoa bilduko dituena.

2022ko martxoan aldatu zen 2019an sinatutako hitzarmena, Nasuvinsaren 2019ko eta 2020ko gastuak –2019ko eta 2020ko aurrekontuei esleituak eta 2021ean justifikatuak– 2022ko aurrekontura egokitzekoa.

Amaierako balantze-txostenetan Nasuvinsak bete zituen hitzartutako konpromisoak deskribatzen dira, baina ez dira jasotzen horiek betetzean egindako gastuak, ezta, beraz, horien justifikazio ekonomikoa ere. Udalak ulertu zuen egindako jarduketaren bolumenak berez justifikatzen duela gastuen betetzea 2019an eta 2021ean, hurrenez hurren, sinatutako hitzarmenetan aurreikusitako 96.000 eta 77.658 euroak baino askoz handiagoa izatea.

Ez daude jasota hitzarmenetan aurreikusitako jarduerak koordinatzeko sortutako Jarraipen Batzordearen bileren aktak.

•49.435 euroko gastu juridikoak prokuradore-zerbitzuen kontratu batean oinarrituta daude, zeina 2021eko abenduaren 20an esleitu baitzen 73.920 euroan.





Esleipendunak datuak babesteko Estatuko eta Europako araudia betetzea jaso da kontratuan, kontratua gauzatzeko funtsezko baldintza berezi gisa.

### *Kontratazio administratiboa*

Ikastetxe publikoak garbitzeko 2019an esleitutako kontratuaren loteen lagin baten exekuzioa aztertu dugu, 4.310.852 euroko esleipen-prezioan, BEZik gabe. Egiaztatu dugunez, udal-alorrak hainbat kontrol egiten ditu ikastetxe publikoen garbiketa gauzateari dagokionez. Hala ere, ordutegia kontrolatzeko ezarritako sistemak ez ditu betetzen baldintza teknikoan agirian eskatutako betekizun guztiak, eta horrek desadostasunak sortzen ditu ikastetxeak garbitzeko egindako orduak zehazterakoan.

Era berean, honako zerbitzu-kontratu hauen lizitazioa, adjudikazioa eta exekuzioa aztertu ditugu:

Kontratua	Adjudikatzeko prozedura	Lizitatzailer kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Adjudikazioaren prezioa BEZik gabe	Merkatzea (%)
Erantzukizun zibileko aseguru- ria	Irekita	1	200.000 (1. lotea)	195.025	2,49
		1	14.999 (2. lotea)	13.519	9,87
Herritarren partaidetzako dinamizazioa	Irekita	1	206.494	206.494	0

Oro har, aztertutako kontratuen lizitazioa eta haien esleipena, bai eta kontratuen exekuzioa ere, kontratuei buruzko legediari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzaileak aztertuta, justifikatuta zuzen kontabilizatuta eta epean ordainduta daude, dinamizazio-kontratuaren bi fakturaren kasuan izan ezik, zeinetan ordaintzeko legezko epea 15 egunez gainditu baita.

Dinamizazio-kontratuaren balio zenbatetsia 1.032.472 eurokoa da, BEZik gabe, eta Europar Batasuneko mugatik gorakoa. Esleipena ez zen argitaratu ez Nafarroako Kontratazioaren Atarian, ez Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean.

*Ondorio horiek kontuan hartuta, hona hemen gure gomendioak:*

- *Prozedura bat ezartzea Tracasa Instrumental SL sozietate publikoko langileek zergak kudeatzeko eta ikuskatzeko laguntza teknikoan eta hitzartutako beste jarduketan batzuetan benetan egiten dituzten orduak kontrolatzeko.*

- *Kontratuaren xedeari lotutako kontratuak gauzatzeko baldintza bereziak ezartzea.*

- *Sistema eraginkor eta fidagarri bat ezartzea ikastetxeen garbiketa-kontratuak gauzatzean ordutegia kontrolatzeko.*







• *Kontratuen esleipena Kontratazioaren Atarian argitaratzea eta, balio zenbatetsia Europar Batasuneko atalasea baino handiagoa denean, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.*

### 5.2.5 Transferentzia-gastuak

2022an, Udalak transferentzia arruntei dagozkien 32,05 milioi eta kapital-transferentziei dagozkien 8,17 milioi eman zizkien honako onuradun hauei:

Kontzeptua	Transferentzia arruntak			Kapital-transferentziak		
	ABG, 2021	ABG, 2022	22/21 aldea (%)	ABG, 2021	ABG, 2022	22/21 aldea (%)
Erakunde autonomoak	11.834.500	12.933.273	9	3.274.420	4.757.010	45
Toki-erakundearen merkataritza-sozieta-teak	2.433.586	6.670.092	174	2.025.000	771.428	-62
Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-trazio Orokorra	188.917	218.790	16	-	-	-
Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak	170.000	170.000	0	-	-	-
Toki-erakundeak	2.571.341	3.659.025	42	241.486	-	-
Enpresa pribatuak	2.415.794	202.014	-92	-	-	-
Familiak	1.899.860	2.429.620	28	1.571.395	2.419.469	54
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	4.923.667	4.763.810	-3	-	18504	
Kanpoan	849.993	1.003.460	18	650.000	200.000	-69
<b>Guztira</b>	<b>27.287.658</b>	<b>32.050.084</b>	<b>17</b>	<b>7.762.301</b>	<b>8.166.412</b>	<b>5</b>

#### *Transferentzia arruntak*

Transferentzia arrunten gastuak 32,05 milioi izan ziren, eta ekitaldian aitortu-tako betebeharrak guztien ehuneko 13 egiten dute; eta haien betetzea behin betiko kredituen ehuneko 96koa izan da. 2021ean aitortutako gastuei dagokienez, ehuneko 17 igo dira.

Transferentzia arrunten guztizkoaren ehuneko 30 Haur Eskolak erakunde au-tonomoari eman zaizkio, ehuneko 19 SAD udal-sozietateari, ehuneko 11 Iruñe-riko Mankomunitateari hiri-garraiorako, eta ehuneko 10 Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari.

Honako igoera hauek aipagarriak dira: ehuneko 233 SAD sozietateari egin-dako transferentziari dagokionez, haren jarduera 2021eko azaroan hasi baitzen; ehuneko 17 Haur Eskolei, eskolatze-tarifen doakotasunak defizita igo baitu, eta ehuneko 42 Iruñerriko Mankomunitateari eskualdeko garraio mankomunatuaren defizitaren igoeraren ondorioz.

Bestalde, merkataritzako alorrak enpresei egindako transferentziak ehuneko 98 murriztu dira 2021ean pandemiaren ondoriozko enpresa-sektorearen krisia arintzeko emandako dirulaguntzen murrizketaren ondorioz.





### *Kapital-transferentziak*

Kapital transferentzietako gastuak 8,17 milioi izan ziren Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru dira, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 69koa izan da.

2021ean sortutako kapital-transferentziekin alderatuta, ehuneko bost igo dira. Aldaketen artean, honako hauek nabarmentzekoak dira: % 70 igo dira Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoari egindako transferentziak; hiri-birgaitzearen kontzeptuan familiei egindako transferentziak % 55 igo dira, eta 2022an ez zaio ekarpenik egin Comiruña merkataritzako udal-sozietateari.

Sozietate publikoei egindako 771.428 euroko ekarpena PCH-IB SAU udal-sozietateari egindako transferentziari dagokio, sozietateak Etxebizitza Planeko inbertsioak finantzatzeko hitzartu zuen mailegua amortizatzen; mailegu horren zor bizia, 2022ko abenduaren 31n, 4,63 milioikoa da.

Honako dirulaguntza eta ekarpen hauek fiskalizatu ditugu:

Dirulaguntza arruntak	Emateko prozedura	Onuradunak	Deitutako zenbatekoa	Gastua
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta elkarten proiektuak desgaitasun/mendetasun eta gizarteratzearen esparruetan	Norgehiagokaraubidea	55	340.000	340.000
Gazte ekintzaileek eratutako enpresak	Banakako ebaluazioa	50	93.000	90.082
Herritarren partaidetza	Norgehiagokaraubidea	113	500.000	479.274
Merkatarien elkarteak, merkataritza bultzatzeko	Norgehiagokaraubidea	9	200.000	43.878
Olentzeroren Lagunen elkartea	Izenduna	1		15.000
Errege Magoen Kabalkadaren Lagunen elkartea	Izenduna	1		55.000
NICDO sozietate publikoa	Izenduna	1		10.000
CEIN	Lankidetzahitzarmena	1		140.000
Udal taldeak	Ekarpena	4 talde		138.465
Kapital-dirulaguntzak	Emateko prozedura	Onuradunak	Emandako zenbatekoa	Gastuak
Behoko solairuetan eta sotoetan uholdeen ondorioak minimizatzen hobekuntzak	Banakako ebaluazioa	10	200.000	37.266
Eraikinen birgaitzea eta berriztatzea	Banakako ebaluazioa	157	1.580.000	1.578.181

Oro har, aztertutako dirulaguntzen ematea, justifikazioa eta ordainketa araudi aplikagarrian ezarritakoaren arabera izapidetu da, eta onartuta, esku hartuta eta zuzen kontabilizatuta daude.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat onetsi zuen 2021eko abenduaren 13an, zeinetan 10.431.140 euroko dirulaguntzak aurreikusten baitira, 12 ildo estrategikotan sailkatuak.





Aztertutako dirulaguntzak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude, eta, oro har, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu dira.

Aipatutako laginaren azterketari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Ez da dirulaguntzen finantza-kontrolik egiten onuradunei dagokienez, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean arautua, zeina, besteak beste, betebeharrak betetzen direla egiaztatzean eta behar bezala justifikatzean datza.

- Ez dago jasota Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritako kontrola eta jarraipena egin denik, dirulaguntzari dagokionez planean ezarritako helburu espezifikoek betetze-maila ebaluatuz.

- Oro har, ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu dirulaguntzen ematea, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean araututakoaren aurka, zeinetan ezarzen baita dirulaguntza banaka hartuta 3.000 eurotik gorakoa bada, deialdia, programa eta egozten zaion aurrekontu-kreditua argitaratu behar direla, bai eta dirulaguntzaren onuraduna, emandako zenbatekoa eta helburua ere.

- Aztertutako dirulaguntza izendunak hitzarmenetan arautu dira. 2022ko ekitaldian, aurrekontu-aldaketa bat onetsi zen, dirulaguntza horiek 2021eko aurrekontu luzatuan sartzeko, onuraduna adierazita. Hala ere, onuraduna ez da identifikatzen aurrekontuko gastuen egoera-orrian, non dirulaguntza izenduna kontabilizatzen den partidaren deskribapena bakarrik agertzen baita.

- Enpresak sortzeko ekintzaile gazteentzako dirulaguntzak eta beheko solairuetako eta sotoetako uholdeetarako eta eraikinak birgaitzeko kapital-dirulaguntzak banakako ebaluazioaren bidez eman dira. Prozedura hori ez dago jasota Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, baina bai Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean, salbuespenezko prozedura gisa. Prozedura horren arabera, dirulaguntza-eskaerak sarrera-hurrenkeraren arabera ebazten dira, eta deialdian baimendutako aurrekontu-kreditua agortu arte ematen dira dirulaguntzak.

- Herritarren partaidetzako dirulaguntzetan ez da erantzukizunpeko adierazpenik eskatzen, eta ez dira egiaztatzen diruz lagundutako xede bererako onuradunak jasotako bestelako diru-sarrerak.

- Olentzeroren lagunak elkarteari dirulaguntza izenduna emateko hitzarmen arautzailean ezartzen denez, elkarte horrek 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru aurkeztu beharko du, bai eta aseguru hori egunean izatearen ordainagiria ere. Elkartek ordainketaren ordainagiria baino ez du aurkeztu.





- CEINekin egindako hitzarmena, 2022. urtean zehar egin beharreko jarduketak arautzen dituena eta 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko indarraldiarekin, 2022ko abuztuaren 23an sinatu zen, CEINek lehen seihilekoko jarduera-txostena udalean aurkeztu ondoren (2022ko ekainaren 27an).

- Udal-taldeendako ekarpena 138.465 eurokoa izan zen. Hauxe da horren xehakapena, taldeka:

Udal taldea	Zinegotzi kopurua	Ekarpenaren zenbatekoa	Intsuldaketa formazio politikoari	%
Navarra Suma	13	63.271	40.383	64
EH Bildu	7	35.762	35.681	100
Alderdi Sozialista	5	26.593	25.000	94
Geroa Bai	2	12.838	18.000*	100
<b>Guztira</b>	<b>27</b>	<b>138.465</b>	<b>119.044</b>	

\*2022ko urtarrilaren 1ean kontuan zegoen saldoa ere transferitu da

2019ko uztailaren 3ko Osoko Bilkurak 3.527 euroko urteko zuzkidura finkoa onetsi zuen talde bakoitzeko, eta 4.407 euroko zuzkidura aldagarria zinegotzi bakoitzeko. 2022rako, kopuru horiek ehuneko bi eguneratu ziren, eta ez zitzairen aplikatu ehuneko 1,5 gehigarriaren igoera.

Zuzkidura horiez gain, Udalak udal-taldeek eskubidez dagozkien laguntzaileen ordainsariak ordaintzen ditu: laguntzaile bat hiru zinegotziko edo frakzio bakoitzeko, eta gehienez ere bi laguntzaile talde bakoitzeko. 2022an, gastu horiek 202.719 eurokoak izan ziren, sei laguntzaile baitzeuden.

Udal-taldeek aurkeztutako gastuen justifikazio-kontua aztertu dugu. Udaleko kontu-hartzaitzak udal-taldeentzako kontuen inguruko aldeko txostena eman zuen. Osoko Bilkurak udal-taldeentzako zuzkidura ekonomikoen kontabilitatea jaso zuen, zeina Alkatetzaren Ebazpen bidez onetsi baitzen.

Udal-taldeek jasotako ekarpenaren zenbateko handi bat transferitzen diote alderdi politikoari, aurreko taulan ikus daitekeen bezala. Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak alderdi politikoen baliabide ekonomikotzat hartzen ditu alderdi politikoek tokiko administrazioetako organoetako ordezkari-taldeengandik jasotzen dituzten ekarpenak. Udal-talde guztiek hitzarmen bat sinatu dute kasuan-kasuko alderdi politikoarekin, hari transferitutako ekarpena arautzeko.

Hitzarmen guztietan ezartzen da alderdi politikoak aholkularitza eta azpiegiturak emanen dizkiola, besteak beste, udal-taldeari, baina ez da sartzen emandako zerbitzuen balorazio ekonomikorik.

Ez da udal-taldeendako zuzkidura ekonomikoei buruzko informaziorik argitaratu Udalaren webguneko gardentasun-atarian.





### Gure gomendioak:

- *Dirulaguntzen finantza-kontrola egitea onuradunei dagokienez.*
- *Dirulaguntzen deialdietan adierazleak zehaztea eta helburuen betetze-maila ebaluatzea, dirulaguntzen plan estrategikoak ezartzen duen bezala.*
- *3.000 eurotik gorako dirulaguntzen emakida Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*
- *Udal-taldearen eta alderdi politikoaren arteko hitzarmen arautzaileetan alderdi horrek ematen dituen zerbitzuen balorazio ekonomikoa sartzeta, eta ekarpena haien kostuaren arabera zehaztea.*
- *Udal-taldeendako zuzkidura ekonomikoei buruzko informazioa argitaratzea Udalaren webguneko gardentasun-atarian.*

### 5.2.6 Inbertsioak

Inbertsioak 23,79 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hamar egiten dute. 2022an egindako inbertsioek ia ez dute aldatarik izan 2021ean exekutututako inbertsioekin alderatuta, zeinak 23,87 milioi eurokoak izan baitziren.

Aurrekontu-aldaketak 28,36 milioi eurokoak izan ziren, eta exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 81 izan zen.

Honako hauek izan dira 2022an exekutatu diren inbertsio nagusiak:

Deskribapena	ABG, 2022
Erabilera publikoko ondasunetan azpiegiturak lehengoratzeta	6.462.486
Mugikortasuneko alorreko erabilera publikoko ondasunak eta azpiegiturak	2.752.279
Ikastetxe publikoak	2.034.624
Kirol-instalazioak	1.243.188
Haur eskolak	1.228.949
Informatika eta informatikako aplikazio berriak	1.089.322





Honako obra-kontratu hauen lizitazioa, adjudikazioa eta exekuzioa aztertu ditugu:

Kontratua	Adjudikazio-prozedura	Lizitazailer kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Adjudikazioaren prezioa BEZik gabe	Merkatzea (%)
2. zabalguneko Civivoxa	Irekita	6	8.211.637	8.022.770	2,30
Buztintxuriko kiroldegia	Irekita	1	6.780.992	6.767.787	0,18
Disuasio-aparkalekuak	Irekita	3 5 lote	214.050 1. lotea	198.574 1. lotea	7,23
Basotxo kalearen berrurbanizazioa	Irekita	4	1.138.820	911.060	20
Mendigoiti IPko kirol-pistaren estaldura	Irekita	2	253.268	246.699	2,59
Pergola estalia eta haur-jolasak	Irekita	2	157.719	157.373	0,22

Oro har, aztertutako obra-kontratuen lizitazioa eta adjudikazioa kontratu-legeriaren arabera izapidetu da, eta gastuak onartuta, esku-hartuta, justifikatuta, behar bezala kontabilizatuta eta epean ordainduta daude. Hala ere, honako hutsune hauek aipatu behar ditugu:

- Ez da Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu bi obra-kontratuaren adjudikazioa, zeinen balio zenbatetsiak Europar Batasuneko 5,38 milioiko atalasea gainditzen zuen.

- Nafarroako Kontratazioaren Atarian ez da argitaratu Kontratuei buruzko Foru Legean kontratuaren lizitazioari buruz ezarritako informazio guztia, besteak beste, Kontratazio Mahaiaren aktak, kontratuaren adjudikazioa eta kontratualdaketak.

- Ez da egin kontratu-betetzeari buruzko ebaluazio-txostenik kontratua amaitzean. Unitate kudeatzaileak txosten bat eginen du ofizioz, kontratuaren betetze egokiari buruzkoa, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko du.

- Kirol-pistaren estaldurari dagokion obran, ez dira bete esleipena eteteko eta kontratua formalizatzeko legez ezarritako epeak.

- Disuasio-aparkalekuko obran, esleipen sozialeko irizpideek ehuneko bosteko haztapena dute, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 64.6 artikuluan ezarritako ehuneko hamarrena baino txikiagoa.

*Gure gomendioak:*

- Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea kontratuei buruzko legerian ezarritako informazio guztia.

- Kontratuaren exekuzioaren ebaluazio-txostena egitea kontratua amaitzean.

- Gizarte-izaerako adjudikazio-irizpideak haztatzea, gutxienez puntu guztien ehuneko hamarrarekin.

*Labriteko pasabidearen egiturazko sendotzea eta egokitapena*





Labriteko pasabidearen egiturazko sendotzea eta egokitzapena egiteko obraren exekuzioa aztertu dugu bai eta 2011n eraikitako pasabidearen akatsengatiko erantzukizunak erreklamatzeko espedienteen izapidetzea ere.

Labriteko pasabidearen obra 2011ko urtarrilaren 27an jaso zen, eta 643.521 euroko kostua izan zuen. Enpresa esleipendunak eskaini zuen berme-epea sei urtekoa izan zen, 2017ko urtarrilaren 27ra arte.

2016ko otsailean, behin-betiko jaso zenetik bost urte geroago, bi plaka erori ziren eta xafra estrukturalen soldaduren oxidazio-maila nabarmena egiaztatu zen.

Udalak pasabidearen egoera eta hondatzearen arrazoiak ezagutzeko kontratatu zuen enpresak 2016ko uztailaren 21ean egindako txostenean, agerian utzi zen egituraren akats larriak zeudela, eta akats horiek diseinu-proiektuari eta obraren exekuzioari egotzi behar zitzaizkiela.

Jasota dago ingeniari-tzibileko enpresa baten txosten tekniko bat, 2019ko otsailaren 8koa, zeinak ondorioztatzen baitu pasabidea konpontzea ez dela bideragarria ez teknikoki ez ekonomikoki, eta hura kentzea eta diseinu berria egitea proposatzen du. Era berean, Ingeniarien Elkargo Ofizialaren 2020ko maiatzaren 13ko txosten bat dago, konponketaren bideragarritasunari buruzkoa, eta konponketa- eta egokitzapen-jarduketak 459.800 eurotan (BEZa barne) kuantifikatzen dituena. Teknikoki bideragarriak ziren bi alternatiba horiek ikusita, Udalak Labriteko pasabidea konpontzea erabaki zuen.

#### *Pasabidearen egiturazko sendotzea eta egokitzapena egiteko obraren exekuzioa*

Labriteko pasabidearen “egiturazko sendotzea eta egokitzapena egiteko proiektuaren idazketa, obra-zuzendaritza eta obra hurrengo koadroan adierazitako data eta zenbatekoetan esleitu ziren:

	TGBaren erabakiaren data	Zenbatekoa BEZa barne	
Proiektua idaztea	2021eko uztailaren 26a	33.003	Esleipendun
Lanen zuzendaritza	2021eko abenduaren 20a	58.080	bera
Obra	2021eko azaroaren 22a	593.718	

Labriteko pasabidearen egiturazko sendotzea eta egokitzapena egiteko obra lizitazioaren prezio berean adjudikatu zen, eta aurreikusitako exekuzio-epea 105 egun naturalekoa zen. Hiru lizitatzailer aurkeztu ziren, eta denek lizitazioaren prezio bera eskaini zuten.

Obra 2022ko martxoaren 7an hasi zen, baina 2021eko abenduan lehenbiziko ziurtapena sinatu zen, 106.659 eurokoa, BEZa barne, soilik material-pilaketari zegokiona, erabiliko zen altzairuaren eskuragarritasuna bermatzeko, lehengaien nazioarteko merkatuaren egoera kontuan hartuta.





Pasabidea birgaitzearen guztizko kostua 1.651.605 eurokoa izan da, “Labriteko pasabidean antzemandako akatsen erantzukizuna zehazteari eta eskatzeari” buruzko espedientearen jasotako fakturen arabera, eta honako kontzeptu hauei dagokie:

Kontzeptua	Zenbatekoa (BEZa barne)
Aldamioak	158.298
Pasabidearen segurtatzea	46.181
Eskatutako txostenak	150.937
Proiektuaren idazketa eta birgaitzearen obra-zuzendaritza	149.564*
Birgaitze-obra	1.059.608
Prezioen berrikuspena (behin-behinekoa)	87.017
<b>Guztira</b>	<b>1.651.605</b>

\*Obra-zuzendariarentzako 58.481 euroko kalte-ordaina barne

Obra-kontratua 593.718 euroan adjudikatu zen, eta haren hiru aldaketa onartu ziren, 215.881 euroan, BEZa barne. Aldaketa horietako bi ez ziren Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu.

Hala ere, birgaitze-obraren guztizko kostua 1.059.608 eurokoa izan zen, adjudikazio-prezioa baino ehuneko 78 gehiago, pasabidearen segurtasuna bermatzeko konponketa-lanak egin zirelako eta beharrezkoak ziren beste gastu batzuk egin zirelako, hala nola soldadura-ikuskapenak eta segurtasun- eta osasun-koordinazioa, idatzitako birgaitze-proiektuan sartuta ez zeudenak.







Jarduketa horiek pasabidearen bideragarritasunerako beharrezkoak dira, eta munta txikiko kontratuen bidez formalizatu dira. Honako hauek izan dira lan horiek:

Kontzeptua	Hartzekodunak	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Zenbatekoa (BEZa barne)
Soldadurak konpontzea	Azpik CONTRATISTA	5.921	7.164
Desapeo-lanak	Azpik CONTRATISTA	1.453	1.758
Eguzki-oihalak kentzea	Azpik CONTRATISTA	3.806	4.605
Lan-eremuen babesa	Azpik CONTRATISTA	15.100	18.271
Materialen entseguak	Azpik CONTRATISTA	4.765	5.766
Segurtasun-neurri gehigarriak	ADJUDIKAZIODUNA	2.970	3.594
Jito Alaiko euri-uren bilketaren birmoldaketa	ADJUDIKAZIODUNA	19.293	23.345
Media Lunako estribuko ingurunearen urbanizazioa	ADJUDIKAZIODUNA	39.969	48.362
Labriteko aldagelaren portikoaren birgaitzea	C	19.695	23.831
Estribuak jartzea	C	19.717	23.857
Labrit pilotalekuaren atzealdearen urbanizazioa	C	29.995	36.294
Pasabidearen oinarri nibelatzaileak eta zoladura	C	22.088	26.727
Pasabidea altxatzea	D	2.400	2.904
Pasabidearen bermeak aldatzea	D	1.200	1.452
Pasabidearen altxatze sinkronizatua	D	1.200	1.452
Pasabidea jaiste	D	1.200	1.452
Pintura eta inprimazioen entseguak	D	1.000	1.210
Segurtasuna eta Osasuna koordinatzea	E	6.200	7.502
Materialak kentzea	F	2.492	3.015
Beste gastu batzuk	ASKOTARIKOAK	6.155	7.448
<b>Guztira</b>		<b>206.619</b>	<b>250.009</b>

Gure ustez, lan horiek guztiak unitate funtzional beraren inguruan biltzen dira eta helburu beraren alde egituratzen dira, hau da, pasabidea eraikitzearen alde. Hori dela eta, birgaitze-obraen parte dira eta modu bateratuan hartu behar dira.

#### *Azpik CONTRATITAZIOA*

Obraen amaierari buruzko txostenaren arabera, bi azpik CONTRATITAREKIN azpik CONTRATITATU DA obraen ehuneko 59,53; azpik CONTRATITATUTAKO guztizkoaren % 53,71 konponentaren exekuzio-kontratuaren hiru lizitatzailleetako bati dagokio.

Kontratuaren baldintza berezietan eta baldintza-agirietan berariaz mugatzen da azpik CONTRATITAZIOAREN ehuneko ehuneko 30era, salbu eta kaudimena beste enpresa batzuei erreferentzia eginez egiaztatzen denean, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 18. artikuluan aurreikusitako moduan; hau da, ezin dira prestazio nagusiak guztiz azpik CONTRATITATU, baina muga hori gainditu ahalko da. Adjudikaziodunak kaudimen tekniko egiaztatu zuenean ez zuen adierazi azpik CONTRATITATUTAKO enpresen parte hartzea.

#### *PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA OBRA-ZUZENDARITZA*

Obra-zuzendaritzari 58.080 euro ordaindu zitzaizkion, adjudikazio-prezioari zegozkionak, bai eta 58.481 euroko kalte-ordaina obra-zuzendariari ere, hori eskatu bai-





tzuen lan handiagoa egin zuelako "jatorrizko exekuzioaren arazoak eta inguruan sortutako obren definizioa" zirela-eta, aurreikusitako 105 eguneko exekuzio-epea 299 egunera luzatu baitzuten. Bidegabeko aberastearen doktrinaren arabera ordaindu zen kalte-ordain hori, Udalaren txosten juridiko batean jasota dagoenez.

Ez zen obra-zuzendaritzako kontratua aldatu, hasieran adjudikatutako kontratuan sartu ez ziren prestazioengatik, proiektuan sartu ez ziren jarduketak gauzatzearen ondoriozkoak.

Udalak ez du baloratu proiektuak akatsak edo gabezia teknikoak zituen, hala badagokio, idazleari erantzukizunak eskatze aldera.

#### *Erantzukizunak erreklamatzea*

2016ko irailaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrak prozedura bat irekitzea erabaki zuen, 2011ko urtarrilaren 27an jasotako pasabidearen obrarengatik erantzukizunak zehazteko, 2016ko uztaileko txostenean egiaztatutako akatsen ondorioz. Udalak lau espediente hasi ditu jasandako kalteengatik erantzukizunak eskatzeko, honako kronologia honekin:

Hasiera-data (Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia)	Amaiera-data	Egoera	Kalteen kuantifikazioa
2016/09/30	2017/05/30	Iraungita (Iraungipen tazitua)	Kuantifikatu gabe
2017/05/30	2022/10/10	Iraungita <sup>2</sup>	794769
2022/10/10	2023/06/01	Iraungita	1158140
2023/06/01	2023/10/16	Amaituta	1651695

Bigarren espedientea Tokiko Gobernu Batzarraren 2017ko maiatzaren 30eko erabakiaren bidez abiatu zen, aurreko espedientearen dokumentazioa jasotzen du, eta hasiera batean 2019ko apirilaren 30ean amaitu zen, Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki bidez. Eskatutako erantzukizunak 794.769 euroan kuantifikatu dira.

Nafarroako Administrazio Auzitegiak, 2020ko irailaren 7ko Ebazpenaren bidez, baietsi egin zuen karga-froga egitea ukatzen zuen Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko apirilaren 2ko erabakiaren aurka proiektua idatzi zuten lau pertsonetatik hiruk jarri zuten errekurtsioa. Erantzukizunak eskatzeko prozedura karga-froga ukatu zen unera eraman zen, eta Tokiko Gobernu Batzarraren erabaki hori deuseztatu zuen, bai eta 2019ko apirilaren 30eko erabakia ere. Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko maiatzaren 19ko erabakiaren bidez, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpena bete zen, eta txosten gehiago sartu ziren espedientean.

<sup>2</sup> Espedientea amaitu egin zen, baina Nafarroako Administrazio Auzitegiak izapide-egintza bat deuseztatu zuenez, karga-froga ukatu aurretiko unera eraman zuen espedientea, eta, azkenean, iraungi egin zen.





2022ko urriaren 10ean, Tokiko Gobernu Batzarrak beste espediente bat (hirugarrena) hasia erabaki zuen; iraungitza jo zuen erantzukizunak eskatzeko aurreko prozedura, eta 1.158.140 euro jotzen zuten erantzukizunak erreklamatzeko onartu zuen.

2023ko ekainaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzarrak azken espedientea hasia erabaki zuen, eta 2023ko urriaren 16an hura amaitzea erabaki zuen, obran parte hartu zuten guztiei modu solidarioan 1.651.695 euro erreklamatu.

2023ko azaroaren 21eko ebazpenaren bidez, pasabidearen hondamen-akatsengatik kalte-ordaina ordaintzeko errekerimendu-espedientea hasi da.<sup>3</sup>

Azken finean, 2011ko urtarrilean jasotako obrak 643.521 euroko exekuzio-kostua izan zuen, eta itxita egon zen 2016ko irailetik 2023ko otsailera bitarte. Erantzukizunak eskatzeko prozedura atzeratu egin da, 2016ko irailetik 2023ko urrira arte, eta Udalak 140.800 euro baino ez ditu kobratu orain arte, pasabidearen akatsengatik kalteen kalte-ordain gisa. Pasabidea sendotzeko obra 593.718 euroan adjudikatu zen, eta kostua, guztira, 1.059.608 eurokoa izan zen, adjudikazio-prezioa baino ehuneko 78 gehiago.

*Gure gomendioak:*

- *Pasabidea sendotzeko obraren proiektuaren balorazio teknikoaren egokitasuna aztertzea, hala badagokio, idazleari bere erantzukizunari dagokion kalte-ordaina eskatzeko, egon daitezkeen akats, gutxiegitasun tekniko, akats material edo ez-egiteengatik.*

- <sup>4</sup>

### 5.2.7 Tributuetak

2022an, Udalaren tributu bidezko diru-sarrerak 97,05 milioi izan ziren, eta aitortutako eskubide guztien ehuneko 36 egiten dute. Zergen ehuneko 63 zuzeneko zergei dagokie, ehuneko 27 tasei eta ehuneko hamar zeharkako zergei (erai-kuntza, instalazio eta obren gaineko zerga).

---

<sup>3</sup> Aurkeztutako alegazioak direla-eta sartu da paragrafo hau

<sup>4</sup> Aurkeztutako alegazioak direla-eta, gomendia ezabatu da.





Honako taula honetan jasota dator zergen banakapena eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa:

	AEG, 2021	AEG, 2022	Aldea (%)
<b>Zuzeneko zergak</b>	<b>54.259.567</b>	<b>60.943.309</b>	<b>12</b>
Lurraren kontribuzioa	30.115.911	30.824.906	2
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	10.186.130	10.496.278	3
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	5.803.854	8.285.645	43
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	8.138.601	11.336.480	39
Luzuzko gastuak (Bingoko sariak)	15070	0	
<b>Zeharkako zergak</b>	<b>13.386.626</b>	<b>10.111.084</b>	<b>-24</b>
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	13.386.626	10.111.084	-24
Tasak	24.423.853	25.992.677	6
<b>Tributu bidezko diru-sarrerak, guztira</b>	<b>92.070.046</b>	<b>97.047.070</b>	<b>5</b>

Honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Zenbateko handieneko eskubide aitortuak lurraren kontribuzioari dagozkio, 30,82 milioi, 2021ean baino ehuneko bi gehiago.
- Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga ehuneko 43 igo da, eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga, ehuneko 39.
- Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga ehuneko 24 jaitsi da.

Udalak aplikatzen dituen zerga-tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga mota	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3948	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,80	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	23	8-25
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	5	2-5

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak ezartzen duenez, balorazio txostenak beste txosten oso edo partzial bat onetsiz berrikusiko dira, beste kasu batzuen artean, onartzen direnetik edo azken berrikuspenetik gehienez ere bost urteko epea igaro denean.

Balorazio txostena 1998koa da, eta berrikusi egin zen, 2016ko ekainaren 28an udalaren balorazio partzialeko txosten bat onetsita. 2023ko urriaren 5ean egin-dako Osoko Bilkuran, hauxe onetsi zen aho batez: “Balorazio txosten berria onartzeko izapideak lehentasunezkoak izateko konpromiso irmoa erakutsi nahi dugu, 2024ko azaroa baino lehen onartu eta 2025ean indarrean jarri ahal izateko”.





Udalak tasa desberdinak aplikatzen jarraitzen die landa-ondasunei eta hiri-ondasunei.

2022ko otsailaren 14an, Ogasuneko Zuzendaritzak Udal Zergak Ikuskatzeko 2022ko Plana onetsi zuen. Plan horren oinarri diren irizpideak 2022ko otsailaren 25eko NAOn argitaratu ziren.

2022an egindako zerga-ikuskapenaren ondorioz, 2,57 milioi jotzen duten eskubideak aitortu dira, eta horietatik, 2022ko abenduaren 31n, 1,97 milioi kobratu dira. Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Ordainagiri kopurua 2021	Ordainagiri kopurua 2022	Zenbatekoa, 2021	Zenbatekoa 2022
EIOZ	230	275	1.258.370	1.051.039
JEZ	3	31	103.624	930.037
Bide publikoaren okupazio-tasa	84	81	311.944	357.864
Hirigintza-lizentziaren tasa	207	254	124.473	131.926
Tasa (% 1,5)	11	0	77.840	
Berandutze eta geroratzeen interesa	22	38	17.629	100.148
<b>Guztira</b>	<b>557</b>	<b>679</b>	<b>1.893.880</b>	<b>2.571.013</b>

Ikuskapen-jarduketak ikuskapen-planak lehentasunezkoztat jotzen zituen zergei zuzendu zaizkie; hau da, EIOZ, JEZ, bide publikoa okupatzeagatik tasak eta hirigintza-lizentzien tasak.

Zerga-ikuskapenak direla-eta aitortutako eskubideak 2,57 milioi izan dira, eta horietatik 1,05 milioi EIOZri dagozkio, eta 0,93 milioi JEZari. Zenbateko horiek kontzeptu horiengatik aitortutako eskubide guztien ehuneko hamar eta zortzi dira, hurrenez hurren.

2022an zerga-ikuskapeneko jarduketak direla-eta aitortutako eskubideak eta ikuskatutako ordainagiri kopurua 2021ean aitortutako eskubideak eta ikuskatutako ordainagiriak baino ehuneko 36 eta 22 handiagoak izan dira, hurrenez hurren.

Zergen lagin bat aztertutik, honako hauek dira atera ditugun ondorioak:

- 2022an, JEZa dela-eta aitortutako eskubideak 11,34 milioi izan ziren, eta 2021eko JEZaren likidazioei zegozkien 766.570 euro barne hartzen zituzten.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak JEZa ordaintzetik salbuetsita daude. Horri dagokionez, 5.000 biztanletik gorako udalek salbuespen horrek ukitutako JEZaren zerga-kuoten ehuneko 95 jasoko dute.

Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa 2020rako ezartzen dituen otsailaren 27ko 3/2020 Foru Legeak xedatzen duenez, udalek funtsaren ekarpen





bat jasoko dute JEZaren diru-bilketaren galera konpentsatzeko. Nafarroako Foru Ogasunaren eta Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2021eko ekainaren 24ko zirkular bateratuak ezartzen duenez, 4. kapitulu (transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak) 45000 azpikontzeptu ekonomikoan (Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzea) kontabilizatu beharko dira.

- JEZaren salbuespenetatik Foru Administrazioetik jasotako 5,13 milioiko ekarpena zuzeneko zergak izeneko 1. kapitulu kontabilizatu da, JEZaren kontzeptuan. Egiaztatu dugu, oro har, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren likidazioa eta diru-bilketa Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eta ordenantza arautzailean ezarritakoaren arabera egiten dela, baina honako hau adierazten dugu:

Zerga honengatik aitortutako eskubideen kobrantza bikoiztuak kontabilizatu dira; 36.920 euro jotzen dute eta 792 ordainagiri dagozkie. Akats hori diru-bilketako eta kontabilitateko aplikazio informatikoen artean informazioa eskualdatzean gertatu zen, eta ez zen zuzendu gertatu zenean, ez ondorengo kontroletan, ez 2022ko ekitaldia ixtean. Deskribatutako gorabeherak informazio-sistemen ahulgune bat agerian uzten du.

- Hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek tokiko jabari publikoko lurzoruko, lurgaineko eta lurpeko aprobetxamendu bereziengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzak telefonia mugikorra zerga-egitate gisa jasotzen du, eta kontzeptu hori, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, tasa horiek kuantifikatzeko araubide berezitik kanpo dago.

- Tasa eta prezio publikoak kalkulatzeko kostuen azterketa ez da amaitu.

- Bide publikoko aparkatze arautuaren tasari dagokionez –2020an fiskalizatua–, Udalak ez du urruneko sarbiderik parkimetroen diru-bilketaren aplikaziora. Ez dago jasota enpresa adjudikaziodunak Segurtasun Eskema Nazionalaren ezarpena burutu duenik MUGAren kudeaketa-sisteman, eta kontabilitatean ez dira baliogabetu 2018., 2020. eta 2021. urteei dagozkien eta 225.143 euro jotzen duten ordainagiri baliogabetuak, kobratzeko dauden eskubide gisa ageri baitira. Horrenbestez, oraindik ere indarrean daude 2020ko fiskalizazioan formulatu ginen gomendioak.

*Gure gomendioak:*

- *Balorazio osoko txostena onestea, katastroko balioak eguneratzeko.*
- *JEZaren salbuespenak 4. kapitulu kontabilizatzea, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzearen kontzeptu ekonomikoari dagozkion transferentziengatiko diru-sarrerei buruzkoan.*





- *Beharrezkoak diren kontrolak ezartzea errore-arriskua murrizteko eta diru-bilketako eta kontabilitateko aplikazioetan sortutako finantza-informazioaren fidagarritasuna hobetzeko.*

- *Ordenantza arautzailea eguneratzea lurzoruko, lurgaineko eta lurpeko aprobe-txamendu bereziengatik tasaren zerga-egitatea Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako kasuetara egokitzeko.*

- *Kostuen azterketa egiteko prozesuarekin jarraitzea, behin betiko ezartzeko.*

- *Prozedura orokorrak onartzea eta ezartzea, enpresa adjudikaziodunak bide publikoko aparkatze arautuaren tasa dela-eta aitortu eta udaletxean sartzen duen diru-bilketa kontrolatzeko, plataforma informatikoaren datuak eta enpresaren aitortpenak aldizka bateratuz.*

- *MUGAren enpresa adjudikaziodunari eskatzea Segurtasuneko Eskema Nazionalaren ezarpena burutu dezala MUGAren kudeaketa-sisteman, dagokion kontratuan ezarritakoaren arabera.*

- *Kontabilitatean baja ematea balio gabetutako txartelei dagozkien eskubide aitortuak.*

### 5.2.8 Prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

3. kapituluan aitortutako prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak –ez dute tributu izaerarik– 17,85 milioi jotzen dute, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptuak	AEG, 2021	AEG, 2022	Aldea (%)
Prezio publikoak	1.201.390	1.167.732	-3
Aurrekontu itxietako itzulketak	595.447	529.217	-11
Beste diru-sarrera batzuk	14.330.691	16.152.792	13
<b>Prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira</b>	<b>16.127.528</b>	<b>17.849.741</b>	<b>11</b>

- *Isun eta zehapenengatik diru-sarrerak aztertu ditugu, eta 12,9 milioi jotzen dute, 2021ekoak baino ehuneko 12 gehiago.*

2022an, guztira 154.776 isun jarri ziren, ehuneko 39 eremu urdinean eta sarbide kontrolatuko eremuetan aparkatzeagatik, eta ehuneko 33 abiaduragatik, arrazoi nagusien artean.

Ekitaldia ixterakoan, aitortutako eskubideen ehuneko 42 kobraturik zeuden.

2020an COVID-19ari lotutako osasun-prebentzio eta -euste neurriak ez bete-tzeagatik jarritako isunek 664.032 euro jo zuten. Kopuru horretatik, 412.285 euro balio gabetu dira, Auzitegi Konstituzionalaren Epaiari jarraikiz, zeinak deuseztat deklaratu baititu Alarma-egoera agintzen duen 463/2020 Errege Dekretuaren zenbait apartatu; horrez gain, 2023an 251.747 euro erreklamatu eta itzuli dira.





2022ko abenduaren 31n, ekitaldi itxietan ordaintzeke zeuden diru-sarreraren itzulketan, 1996tik 2021era, 204.325 eurokoa zen. Ehuneko 35 isunei dagokie, eta ehuneko 29, lursailen balio igoeraren gaineko zergari.

• San Fermin festetan publizitate-babesletzen kontratazioaren bidez lortutako diru-sarrerak aztertu ditugu. Egiaztatu dugu kontratu horren prestaketa eta adjudikazioa kontratuen legeriaren arabera izapidetu zela; nolana ere, 15.000 euroko prezioa hiru hilabeteko atzerapenarekin kobratu zen, Tokiko Gobernu Batzarrak administrazio-baldintza orokorren agirian ezarritako eta erabakitako epearekin alderatuta.

*Gomendatzen dugu azter dadila, eta, hala badagokio, itzuli edo erregularizatu dadila itxitako ekitaldietako diru-sarreraren itzulketen arabera egiteke dauden ordainketen saldoa.*

### 5.2.9 Jasotako transferentzia arruntak

Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak 111,66 milioi izan ziren. 2022ko ekitaldian aitortutako eskubide guztien ehuneko 42 egiten dute. Kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptuak	AEG, 2021	AEG, 2022	Aldea (%)
Estatuko Administrazio Orokorra	527.037	250.576	-52
Foru Komunitatea	108.844.029	107.926.574	-1
Suhiltzaileen montepiorako ekarpena	349.730	344.732	-1
Enpresa pribatuenak	0	2.500	
Familiak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak	28.650	0	-100
Europar Batasuna	972.527	3.132.350	222
	110.721.973	111.656.732	1

Transferentzia arrunt guztien ehuneko 77 Toki Ogasunen Partaidetza Funtzari dagokio; hain zuzen, 86,35 milioi.

2022an transferentzia arruntengatik sortutako diru-sarrerak 2021eko ekitaldi-koak baino ehuneko bat handiagoak izan ziren.

Aldaketen artean, nabarmentzekoa da 2022an hiriburutza-agiria kendu zela, zeinak 2021ean 26,12 milioi jo baitzuen. 2022an, Udalak 86,35 milioi jaso zituen Toki Ogasunen Funtsetik; 2021ean, berriz, 87,90 milioi jaso zituen guztira, hiriburutza-agiria aintzat hartuta. Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen aldaketarekin, toki finantzaketarako eredu berri bat ezarri zen, eta hiriburutza-agirien sistema ezabatu zen funtsetik Iruñeko Udala-rendako finantzaketa-lerro espezifiko gisa.

Aipagarria da Europar Batasunak emandako diru-laguntzak ehuneko 222 handitu direla.







Egiaztatu dugu, oro har, Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako eta haietatik jasotako transferentzia arruntak zuzen kontabilizatu direla.

### 5.2.10 Informazio-sistemak

Egiaztatu dugu ez direla bete 2017ko ekitaldiko fiskalizazioan informazio-sistemi eta informazio-teknologiaren kontrolei buruz formulatutako gomendioak.

Honako hauek dira bete gabe dauden gomendioak:

- *Sistema informatikoen plan bat onartzea.*
- *Softwarea planifikatzea eta erostea sistemen plan estrategiko batekin bat.*
- *Informazioa garatzeko eta kudeatzeko funtzioen bereizketa ziurtatzea.*
- *Aplikazioetan aldaketak kudeatzeko prozesua osatzea, ekoizpena igaro aurreko aldaketen probak eta azken erabiltzaileek horiek onartzea barne.*

2017ko fiskalizazioan egiaztatu genuen ez zela bermatzen Segurtasun Eskema Nazionalaren aplikazioa. Horri dagokionez, 2022ko ekitaldian, 230.000 euroko guztizko kostua duen proiektu bat jasota dator, Next Generation EU funtsekin finantzatua, segurtasun-eragiketen zentro bat abian jartzeko (146.500 euro) eta haren sistema eta zerbitzu digitalak Segurtasun Eskema Nazionalera egokitzeko (83.500 euro). 2022an, 90.513 euroko guztizko gastua egin da ANIMSA sozietateari enkargatutako proiektu horrekin lotuta.

Informazioaren teknologiaren kudeatzailea Animsa udal sozietate publikoa da. Urtero –ez du plangintza estrategikorik–, Udalak ohiko zerbitzuak eta inbertsioak egiteko agindua ematen dio, hala nola ekipamendua eta softwarea erosi eta aplikazio informatikoak garatu ditzala. 2022ko ekitaldian, Animsak 3,58 milioi fakturatu dizkio Udalari ohiko informatika-zerbitzuengatik eta 2,17 milioi inbertsioengatik; guztira 5,75 milioi.

### 5.2.11 Diruzaintza

2022ko abenduaren 31n, Udalaren diruzaintzako saldoa 73,22 milioi zen, honako hauetan:

	Saldoa 2021/12/31n	Saldoa 2022/12/31n
Kontu korranteak	46.463.970	43.077.141
Banaketa kontua	2.243.938	2.262.879
Kutxa	14.604	24.006
Eperako ezarpenak	15.000.000	10.000.000
Maileguak / Kreditu-kontuak	3.854.167	17.861.111
<b>Guztira</b>	<b>67.576.679</b>	<b>73.225.137</b>

Honako hauek dira egindako azterketaren ondorioak:





- Kutxa finkoaren aurrerakinetan, kontabilitate-saldoen eta banku-saldoen arteko aldeak egiaztatu ditugu, eta horiek esanguratsuak ez badira ere, agerian uzten dute saldoak ez direla berdinkatzen.

- Finantza-erakunde batean saldoak erabiltzeko ahaldun gisa agertzen dira baimenduta ez dauden pertsonak.

- Ez dago jasota arduradunak sinatutako eskudiruaren kutxa guztien kontaktarik.

*Gomendioak:*

- Kutxa finkoaren aurrerakinen saldoak berdinkatzea.*
- Baimendutako pertsonak finantza-erakunde batean saldoak erabili ahal izateko ahalduntzea.*

- Eskudiruaren kutxa guztien kontaketa egitea eta sinatzea.*

### 5.3 Erakunde autonomoak

Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko kontuetan jasota datoz egoera-orri finantzarioei buruzko auditoretza eta kontratazioaren, aurrekontuen eta langileen arloko legezketasun-auditoretza.

Auditoretzetan emandako iritzia hauxe izan da:

Erakunde autonomoa	Finantza-auditoretza	Legezkotasun-auditoretza
Haur Eskolak	Aldekoa	Aldekoa, salbuespenekin
Hirigintzako Gerentzia	Aldekoa	Aldekoa

Haur-eskoletako legezketasun-auditoretzaren salbuespena garbiketako eta elektrizitate- eta gas-hornidurako sei kontraturi dagokie. Kontratu horiek munta txikiko kontratu gisa izapidetu dira, balio zenbatetsiari dagokion lizitazio-prozedura jarraitu gabe. Prestazio horien gastua 2022an 376.000 euro izan zen.

Hirigintzako Gerentziaren finantza-auditoretzan azpimarra-paragrafo bat sartu da, erakunde autonomoaren finantza- eta kudeaketa-mendekotasunaren mailari buruz ohartarazteko; izan ere, Udalaren erabakien mende dago, finantza-ketari eta helburu soziala betetzeari dagokienez.





### 5.3.1 Iruñeko Udalaren Haur Eskolak

Haur Eskolak erakunde autonomoaren 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzio-egoera eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa honako hau da:

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	AEG, 2022	AEG, 2021	Aldaketa (%)
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	1.061.000		1.061.000	747.298	1.137.451	-34
4. Transferentziak arruntak	8.509.343	1.254.430	9.763.773	9.763.773	8.365.000	17
7. Kapitaleko transferentziak	21.500	1.074.748	1.096.248	1.096.248	1.172.800	-7
8. Finantza-aktiboak	0	200.177	200.177	0		
<b>Guztira</b>	<b>9.591.843</b>	<b>2.529.355</b>	<b>12.121.198</b>	<b>11.607.319</b>	<b>10.675.251</b>	<b>9</b>

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	ABG, 2022	ABG, 2021	Aldaketa (%)
1. Langileak	8.242.603	1.075.230	9.317.833	9.253.131	8.237.372	12
2. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	1.327.740	179.200	1.506.940	1.344.990	990.527	36
6. Inbertsioak	21.500	1.274.925	1.296.425	1.295.825	897.437	44
<b>Guztira</b>	<b>9.591.843</b>	<b>2.529.355</b>	<b>12.121.198</b>	<b>11.893.946</b>	<b>10.125.336</b>	<b>17</b>

2022an aitortutako betebeharrak 11,89 milioi egiten dute, behin betiko kredituen ehuneko 98. Ekitaldian 2,53 milioi jotzen zuten aurrekontu-aldaketak izapidetu ziren.

Betebehar guztien ehuneko 78 langileria gastuei dagokie, ehuneko 11 ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntei, eta ehuneko 11 inbertsioei.

2022ko ekitaldiko gastuak 2021ean aitortutakoak baino ehuneko 17 handiagoak izan ziren, batez ere langileria-gastuen ondorioz.

2022an aitortutako eskubideek 11,61 milioi egin zuten, eta horien exekuzio-maila behin betiko aurreikuspenen ehuneko 96 izan zen.

Diru-sarrera guztien ehuneko 84 Iruñeko Udalaren transferentzia arruntei dagokie.

Nabarmentzekoa da tasak ehuneko 34 jaitsi direla, 2021-2022ko ikasturtetik eskolatze-tarifak doakoak izan direlako, eta Udalaren ekarpena ehuneko 17 handitu dela, funtzionamendu-gastuak finantzatzeko, tasak murriztearen ondorioz sortutako defizita handitu delako.





### *Langileria gastuak*

2022an, Haur Eskolak erakunde autonomoaren langileria gastuak 9,25 milioikoak izan ziren.

269 langileren maiatzeko nomina aztertu dugu (oinarrizko soldata, osagarriak eta antzinatasuna), guztira, 396.950 eurokoa. Hauexek dira ondorioak:

- Oro har, ordaindutako eta kontabilizatutako ordainsari-kontzeptuak plantillan sartutako lanpostuei dagozkie eta araudi erregulatzailearekin bat datoz, honako kasu hauetan izan ezik:

- Bidegabeki ordaindu zaio eskusibotasun-osagarria bateraezintasun-osagarria dagokion lanpostu bati. Erakunde autonomoak bidegabe ordaindutako 2.715 euroak itzultzea eskatu du.

- Lanpostuen zerrendan agertzen den egoera administratiboa ez da zuzena lau lanposturen kasuan.

### *Plantilla organikoa*

2021eko abenduaren 30ean, Udalaren Osoko Bilkurak hasierako onespina eman zion Haur Eskolen 2022ko plantilla organikoari, eta 2022ko apirilaren 7an Osoko Bilkurak behin betiko onespina eman zion, aurkeztutako 19 alegazioak ebatzi ondoren. Plantilla 2022ko maiatzaren 16ko NAOan argitaratu zen.

2022ko plantilla organikoak 241 lanpostu jasotzen ditu, aurreko ekitaldikoak baino 17 gehiago; hauxe da horien araubide juridikoa:

Araubidea	2021	2022	Aldea
Behin-behinekoak	2	2	0
Funtzionarioak	117	157	40
Lan-kontratadun finkoak	35	12	-23
Lanaldi partzialeko lan-kontratadunak	70	70	0
Guztira	224	241	17

Ekitaldi horretan lanpostu kopurua handitu da batez ere 2022/2023ko ikasturtean haur-eskola berri bat ireki zelako.

241 lanpostuen ehuneko 67; hau da, 161, hezitzaileak dira.

Lanpostu hutsak 156 dira, guztizkoaren ehuneko 65. Ez dago jasota zenbat lanpostu huts beterik dauden. Ikasturte bakoitzerako hezitzaileen kontratazioak ez zaizkie esleitzen plantillako lanpostu hutsei.

### *Enplegu-eskaintza publikoak*

Haur Eskolen Gobernu Batzarrak, 2022ko maiatzaren 12an, aldi baterako enplegua egonkortzeko 78 plazako EEP bat onetsi zuen, maiatzaren 24ko NAOan argitaratua,





enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan. 2022ko azaroaren 7ko NAOn argitaratu zen horren aldaketa, alegazioak eta errekursoak baietsi eta akatsak zuzendu ondoren.

2022ko abenduaren 19an, 75 lanpostu betetzeko deialdia argitaratu zen NAOn: 47 merezimendu-lehiaketaren bidez eta 28 oposizio-lehiaketaren bidez. EEPan sartutako bi lanpostu ez ziren deitu ebazpen judizial batek aginduta finko deklaratu zirelako.

Egonkortzeko enplegu-eskaintza publikoa 2022ko ekainaren 1a baino lehen onetsi eta argitaratu da, eta deialdia 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu da, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritako epeak betez.

Ezin izan dugu egiaztatu EEPan sartutako lanpostuek legean ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta ahal diren lanpostu guztiak eskaini dituztela, kontratuetan ez delako lanpostua identifikatzen eta ezin direlako plantillan hutsik dagoen lanpostu bati lotu. Era berean, plantillan ez da adierazten zer lanpostu huts dauden beteta.

Egonkortzeko EEPan sartutako lanpostuak zehazteko, eskuzko eta banakako azterketa nekeza egin da lanpostu eta kontratatutako pertsona bakoitzari buruz.

2022ko azaroaren 24an, Haur Eskolak erakunde autonomoaren Gobernu Batzarrak bost lanpostuko EEP bat onetsi zuen, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legean ezarritako ordezkatzeko-tasak aplikatuz, eta 18 lanpostu berriko EEP bat 2022an, haur-eskola berri bat irekitzearen ondoriozkoa, biak 2022ko abenduaren 15eko NAOn argitaratuak.

2022ko abenduaren 31n, honako hau da azken bost urteetan onetsitako Enplegu Eskaintza Publikoen egoera:

Lanpostuak	2018	2019	2020	2021	2022
Enplegu-eskaintza publikoa	10	54	10	51	100
Deitutakoak	0	1	0	0	75

Ez da deitu 2018tik 2021era bitartean onartutako enplegu-eskaintza publikoetan jasotako lanpostuetarako hautapen-prozesurik, bat izan ezik; beraz, ez da murriztu langileen behin-behinekotasun tasa.

#### *Gure gomendioak:*

• *Plantilla organikoa langileen lanpostuak egituratzeko eta kudeatzeko tresna gisa erabiltzea, eta langileen kontratazioak plantillako dagozkien lanpostuei lotzea.*

• *Onartutako EEPetan jasotako lanpostu guztiak deitzea eta langileen behin-behinekotasuna murriztea.*





### 5.3.2 Hirigintzako Gerentzia

Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoaren 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren exekuzio-egoera eta aurreko ekitaldiarekiko konparazioa honako hau da:

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	AEG, 2022	AEG, 2021	Aldaketa (%)
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	296.100		296.100	125.901	-29.876	521
4. Transferentzia arruntak	3.469.500		3.469.500	3.169.500	3.469.500	-9
7. Kapital-transferentziak	6.995.300	6.884.440	13.879.740	6.692.880	14.076.590	-52
8. Finantza-aktiboak	0	1.462.777	1.462.777	0	0	
<b>Guztira</b>	<b>10.760.900</b>	<b>8.347.217</b>	<b>19.108.117</b>	<b>9.988.281</b>	<b>17.516.214</b>	<b>-43</b>

Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	ABG, 2022	ABG, 2021	Aldaketa (%)
1. Langileak	1.561.000		1.561.000	1.470.586	1.472.777	-0,15
2. Ondasun arruntak	478.600		478.600	239.792	223.341	7
3. Gastu finantzarioak	25.000		25.000	16.368	0	
4. Transferentzia arruntak	1.000		1.000	0	0	
6. Inbertsio errealak	6.995.300	8.347.216	15.342.516	6.207.294	23.109.207	-73
9. Finantza-pasiboak	1.700.000		1.700.000	1.700.000	1.700.000	
<b>Guztira</b>	<b>10.760.900</b>	<b>8.347.216</b>	<b>19.108.116</b>	<b>9.634.040</b>	<b>26.505.324</b>	<b>-64</b>

Aitortutako betebeharrak 9,63 milioi egin zuten, behin betiko kredituen ehuneko 50, inbertsioen exekuzio txikiaren ondorioz. Gastu guztien ehuneko 64 inbertsioei dagokie; ehuneko 18 finantza-pasiboei, eta ehuneko 15 langileria-gastuei, kapitulu aipagarrien artean.

2022ko ekitaldiko gastuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 64 txikiagoak izan ziren, batez ere inbertsioak ehuneko 73 murriztu zirelako.

2022an aitortutako eskubideek 9,99 milioi egin zuten, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 52.

Ehuneko 68 udalaren transferentzietan dagokie (ehuneko 32 arruntak eta ehuneko 36 kapitalekoak), eta ehuneko 30 urbanizazio-kuotengatik diru-sarrerari, zeinak kapitaleko transferentziak izeneko 7. kapitulu kontabilizatuta baitaude.

2022ko ekitaldiko diru-sarrerak ehuneko 43 txikiagoak izan ziren 2021ean aitortutakoak baino, batez ere kapitaleko transferentzietan ehuneko 52 egin zutelako behera.

#### *Langileria gastuak*

2022ko ekitaldian, Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoko langileria gastuak 1,47 milioiok izan ziren.





Ez da onartu 2022. urterako plantilla organikoa. 2021eko plantillak 33 lanpostu jasotzen zituen, honela:

Araubidea	Lanpostuak
Behin-behinekoak	5
Funtzionarioak	28
<b>Guztira</b>	<b>33</b>

Funtzionario-lanpostuen ehuneko 50 hutsik daude, eta horietatik, ehuneko 43 beteta daude, honako taula honetan adierazten den bezala:

Lanpostuak	Gerentzia
Plantillan dauden funtzionario-lanpostuak	28
Beteta	14
Hutsik	14
Bete diren lanpostu hutsak	6
Bete gabeko lanpostu hutsak	8

2022ko ekitaldian, behin-behinekotasuna ehuneko 30 zen.

26 langileren maiatzeko nomina aztertu dugu (oinarrizko soldata, osagarriak eta antzinasuna), guztira, 77.473 eurokoa. Oro har, ordaindutako eta kontabilizatutako ordainsari-kontzeptuak plantillan sartutako lanpostuei dagozkie eta araudi erregulaztailearekin bat datoz, honako kasu hauetan izan ezik:

- Bost langileri 7.657 euro bidegabeki ordaindu zaizkie familia-laguntzarengatik. Hirigintzako Gerentziak bidegabeki egindako ordainketa horiek itzultzea eskatu du.
- Enplegatu bati 3.415 euro gutxiago ordaindu zaizkio gradu-ordainsariaren kontzeptuan; 2023an, egoera hori erregularizatu egin da.

#### *Enplegu-eskaintza publikoa*

Hirigintzako Gerentziaren Kontseiluak, 2022ko maiatzaren 18an, aldi baterako enplegua egonkortzeko 5 plazako EEP bat onetsi zuen, Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen esparruan. 2022ko maiatzaren 24ko NAO n argitaratu zen.

Bost plaza horiek 2008ko abenduaren 31 baino lehenagoko antzinasuna dute, eta horietako hiru 2019an onetsitako EEPTik datoz. 2019ko EEPan sartutako plaza bat, aldi baterako eta etenik gabe beteta zegoena 2019a baino lehenagotik, ez zen deitu eta ez zen sartu 2022ko ekitaldiko EEPan.

2022ko ekitaldiko EEPko bost plazak merezimendu-lehiaketa bidez deitu dira. Hirigintzako Gerentziaren Kontseiluak 2022ko azaroaren 23an hautapen-prozesua Udalarari enkargatzea erabaki zuen, eta erabaki hori 2022ko abenduaren 15eko NAO n argitaratu zuen.





Hortaz, Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoak EEPa onesteko eta argitaratzeko epeak (2022ko ekainaren 1a) bete ditu, baita eskainitako plazen deialdienak ere (2022ko abenduaren 31), zeinak ezarrita baitaude Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean.

#### *Hirigintza-poligonoak*

Kontu orokorrari buruzko kontu-hartzaitzaren txostenak agerian uzten du Gerentziak hirigintza-poligonoak mugarik gabe mantentzen dituela bere kontabilitatean, haiek itxi eta behin betiko likidatu gabe.

#### *Gure gomendioak:*

- *Ekitaldi bakoitzerako plantilla organikoa onestea.*
- *Egonkortzeko EEPan sartzea legez ezarritako baldintzak betetzen dituzten plaza guztiak.*
- *Bukatutako poligonoak ixtea eta behin betiko likidatzea.*

#### 5.4. MERKATARITZA SOZIJETATE PUBLIKOAK ETA FUNDAZIO PUBLIKOA

2022ko ekitaldian, udal-sozietateek eta Gayarre Antzokia fundazio publikoak kanpoko profesionalek egindako urteko kontuen eta legezko tasunaren auditoretza aurkeztu zuten. Profesional horiek honako iritzi mota hauek eman zituzten:







Entitatea	Finantza-auditoretza	Legezkotasun-auditoretza
Comiruña SA	Aldekoa	Aldekoa, salbuespenekin
PCH-IB Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa	Aldekoa	Aldekoa
Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzua Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua	Aldekoa	Aldekoa
Animsa	Aldekoa	Aldekoa
Mercairuña SA	Aldekoa	Aldekoa
Gayarre Antzokia fundazioa	Aldekoa	Aldekoa

PCH-IB Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa sozietatearen legezkotasun-auditoretzaren norainokoak aurrekontuak, kontratazio administratiboa eta langileria bil-tzen ditu, eta Comiruña, Mercairuña eta Animsaren kasuan, kontratazio administrati-boa. ELZ sozietatean eta Fundazioan ez da zehazten auditoretza horren norainokoa.

Udal-sozietate publikoen kontuak eta auditoretzak aztertuta, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Comiruñan legezkotasuna betetzeko salbuespena Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legean ezarritako prozedura bete gabe zuzenean esleitutako bi kontra-turi dagokie. Kontratu horietako bat hornidura elektrikoena zen, eta guztira 58.849 euroko gastua eragin zuen 2022an, eta, bestea, garbiketakoa; azken horren kasuan, 2022an 30.996 euro fakturatu ziren, eskainitako 13.923 euroko zenbatekoaren aldean.

- Udalak 2021eko abenduaren 31n onetsi zuen 1.025.000 euro transferitzea PCH-IB Pertsona Bakarreko Sozietate Anonimoa sozietate publikoari, eraikinak berritzeko eta birgaitzeko. Sozietateak transferentzia hori 2023an kobratu zuen, eta transferitutako 1.025.000 euroetatik, 105.000 euro baino ez ditu gastatu.

- ELZ Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua udal-sozietatearen urteko kon-tuen auditoretzan enfasi-paragrafo bat sartu da Nafarroako Justizia Auzitegi Na-gusiaren 2022ko ekainaren 7ko epaiaren ondorioei buruz. Horren arabera, hitzar-menak eragotzi egiten du kanpora ateratzea, eta sozietate publikoak kontzeptu horren barruan sartzten ditu, eta, beraz, langileak ezin dira sozietate publiko ba-tera transferitu. Ez da enpresaren ondorengotzarik gertatu, eta langileek jato-rrizko enplegatzaile itzuli behar dute, Iruñeko Udalera. 2022ko ekainaren 23an, kasazio-errekurtsioa aurkeztu zen Auzitegi Gorenean.

Udalak 2022ko abenduaren 1etik aurrera sartu zituen udal-plantillan ELZ Per-sona Bakarreko Sozietate Mugatua udal-sozietateko langileak, 2022ko ekaina-ren 7ko epaia behin-behinean betez.

Informazio hori Udalaren oroitidazkian sartuta dago. Gai horri dagokionez, auditoretza-iritzia ez da aldatu.

Egiaztatu dugunez, 2023ko irailaren 12an, ELZ Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua udal-sozietatearen kontuak formulatu ondoren, Auzitegi Gorenak ez zuen onartu doktrina bateratzeko Iruñeko Udalak Nafarroako Justizia Auzitegi





Nagusiak gatazka kolektiboko prozeduran emandako epaiaren aurka aurkeztu zuen kasazio-errekurtsoa. Auto horren aurka ezin da inolako errekurtsorik jarri.

*Gure gomendioak:*

*Udal-sozietateei finantzaketa transferitzea, exekutatzen dituzten inbertsioen ekuzioa finantzatu behar duten unean.*





## **Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak**





## KONTUEN GANBERAK IRUÑEKO UDALAREN 2022ko EKITALDIKO KONTU OROKORRARI BURUZ EGINDAKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA. ALEGAZIOAK.

### 1.-HIRIBURUTZARI DAGOZKION DIRU-SARREREN GALERARI DAGOKIO-NEZ.

Iruñeko Udalak joan den abenduaren 5ean jaso zuen Kontuen Ganberak 2022ko kontu orokorrari buruz egindako behin-behineko fiskalizazio-txostena. Txosten horrek 5.1 puntu bat du 5. gehigarrian, eta bertan xehetasunez aztertzen ditu 2022ko aurrekontu-likidazioaren magnitude jakin batzuk, bai zenbatekoei dagokienez, bai 2021 eta 2022 arteko bilakaerari dagokionez; amaitzeko, Udalak 2022ko abenduaren 31n zuen finantza-egoeraren balorazioa egiten du.

2022ko itxieran aurrezki gordinaren murrizketa berariaz aipatzen da 2021ekoarekin alderatuta, “...funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arruntak baino proportzio handiagoan igo direlako, ehuneko zortzi, eta bestean, aldiz, ehuneko bi.”

Hurrengo orrialdeetan, 5.2.9 puntuan, jasotako transferentzia arruntak aztertzen dira. Era berean, hitzez hitz aipatzen da: “Aldaketen artean, nabarmentzekoa da 2022an hiriburutza-agiria kendu zela, zeinak 2021ean 26,12 milioi jo baitzuen. 2022an, Udalak 86,35 milioi jaso zituen Toki Ogasunen Funtsetik; 2021ean, berriz, 87,90 milioi jaso zituen guztira, hiriburutza-agiria aintzat hartuta. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2ko 2/1995 Foru Legearen aldaketarekin, toki finantzaketarako eredu berri bat ezarri zen, eta hiriburutza-agirien sistema ezabatu zen funtsetik Iruñeko Udalarendako finantzaketa-lerro espezifikoa gisa”.

Uste dugu behin-behineko txostenak ahaztu egiten duela Hiriburutza Agiria kentzeak Ganberaren gomendioak urratzen dituela, eta, era berean, finantzaketa-galera partzialki irudikatzen du, Hiriburutzari buruzko Foru Legetik ondorioztatzen zen gehikuntza-itxaropenarekin alderatzea ahaztuta:

- a) 2019an 4/2019 Legea eman zen, Toki Administrazioei buruzko Foru Legea aldatu eta Nafarroako toki-erakundeen erreklamazio historiko bat –toki-erakundeen partaidetza Nafarroako tributuetan ehuneko jakin baten arabera– asetzerara datorrena; horrez gain, Iruñeari dagokionez, hiriburutza-sistemak aitortzen zituen.

Arauren zioen azalpenak Nafarroako toki-erakundeen asmoa aitortzen du:

Nolanahi ere, XXI. mendearen hasieratik bertatik argi gelditu da aipatutako arauak berrikusi beharra dagoela; eta, horregatik, gure toki administrazioaren erreforma egitea proposatu da, oinarri hauekin: eskumenen banaketa argia; toki-antolaketa berria ezartzea, udalez gaindiko entitateen ugaltze gehiegizkoa eta, kasu batzuetan, eragingabea arautuko duena (dauden baliabideen azpierzabilerak baitakar); eta, azkenik, finantzaketa-eredu berri bat ezartzea, nahikotasun finantzarioaren, aurrekontu-jasangarritasunaren, elkartasunaren, toki-autonomiaren eta lurralde-orekaren printzipioekin bat etorriko dena, horiek baitira Nafarroako toki administrazioari buruzko ikusmolde gaurkotu baten oinarria.

(...)

Erreforma honek eragina du bai toki ogasunen funtsetan (transferentzia arruntak nahiz kapital-transferentziak), bai udal tributuetan. Helburua da toki entitateen eskumenei eta betebeharrei aurre egiteko moduko askitasun





ekonomikoa bermatzen duen finantzabidea lortzea. Nafarroako lurralde orekaren eta kohesioaren printzipioa ikusgai jarriko duena eta udalerrien arteko elkartasunari balioa emanen diona. Udalerriek gehiegizko aldebakartasuneko ikuspegiak gainditu eta finantzaketa eta baliabideak amankomunean jarri beharko dituzte, herritarrei ematen dizkigun zerbitzuen hobekuntza betiere lurralde osoan gerta dadin.

Era berean, gure toki erakundeen heldutasuna aintzat hartzea planteatzen da, nabarmen gutxituz Nafarroako Gobernuak Toki Ogasunen Funtsean zerbitzu finalistak finantzatzeko den partearen kudeaketan eta bideraketan daukan esku-hartzea.

**Foru legeak printzipio bezala ezartzen du Toki Ogasunen Funtsa zuzkitzea Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu diru-sarreraren portzentaje finko eta egonkor baten arabera, horrela erantzuna emanez toki entitateek tributu diru-sarrera horietan parte hartzeko duten eskubideari.**

Parte-hartze portzentajearen zenbateko zehatza aurrerago erabaki eta ezarriko da beste arau batean, hura kalkulatzeko behar diren azterketak egin ondoren. Lan horren bidez halaber bilatuko da premiazkoa den eskumen-zedarritze eta -deskorapilatze bat egitea, kontuan hartuta gaur den egunean toki- eta foru-mailen artean teilakatuta agertzen direla eskumen horiek.

**4/2019 Foru Lege horrek Toki Ogasunein buruzko Foru Legearen 123. artikulua aldatu zuen, modu batean ezen, adierazitako xedek betez, ehuneko jakin bat aitortu zuen eta hiriburutza-sistemari eutsi zion:**

“123. artikulua.

**1. Nafarroako udalerriek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu bitartezko diru-sarreretan parte hartuko dute, sarrera guztien portzentaje finko bat hartuz urtero,** zehaztapen hauekin bat:

- a) Portzentaje hori Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituen foru legerian ezarriko da, eta, behin Nafarroako Foru Komunitateak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoa kenduta, kalkulatu da Nafarroako toki entitateen eta Foru Komunitateko Administrazioaren artean unean-unean indarrean dagoen eskumen-banaketaren arabera, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.
- b) Nafarroako toki entitateen artean banatu beharreko oinarria kalkulatzeko erreferentziatzen hartuko dira kasuan kasuko aurrekontua onetsi aurretik Ogasun Publikoak itxikatu azken kontabilitate-ekitaldian izandako tributu bitartezko diru-sarrerak.

2. Toki entitateek Nafarroako tribuetan duten parte-hartzearen zenbatekoa hauen bitartez banatuko zaie entitate horiei:

- a) Transferentzia arruntak, toki entitateak ematen dituen zerbitzuak finantzatzekoak, Nafarroako Gobernuak finantzaketa moduluak ezarri dituen horietarako. Aipaturiko transferentzien zenbatekoa modulu horiek ezartzen dutenaren arabera izanen da.
- b) Kapital-transferentziak, Nafarroako Gobernuak onetsitako Toki Azpiegituren Plan Zuzendariari lotutako inbertsioak finantzatzekoak, plan horietan zehazten baita kasuko zerbitzuko estrategia, udalerriaz haragoko lurralde esparrurako.
- c) Libreki erabaki beharreko zenbateko bat, toki entitate bakoitzari esleituko zaiona printzipio hauekin bat: justizia, proportzionaltasuna, kohesio soziala, lurralde oreka eta finantza askitasuna. Toki entitate bakoitzak erabakiko du, bere autonomiaz baliatuz, zenbateko horren erabilera, eta aplikatzen ahalko du bai bere gastu arrunta finantzatzeko, bai azpiegiturako inbertsioak finantzatzeko.

Esleipen horretarako irizpideak foru lege bidez ezarriko dira.

d) Finantzaketarako lerro espezifikokoak; besteak beste, honakoak, gutxienez ere:

**-Hiriburutza Agirien sistemak.**

-Nafarroako toki entitateen ordezkartasuna duten elkarte edo federazioentzako laguntza ekonomikoak, Foru Komunitatean duten ezarpenaren proportzioan.

-Hautetsi-zereginetako jardunaren kontzeptuan toki entitateek ordaindutako zenbatekoen konpentsazioa.





3. Funtsaren zuzkidura, eguneratze-modua eta indarraldia ezartzen dituen foru legeak ezarriko du, halaber, banaketa-formula, zeinak kontuan hartu beharreko banaketa-aldagaiak zehaztuko baititu, artikuluko honen bigarren paragrafoko c) apartatuan azaldutako printzipioetan oinarrituta.

4. Nafarroako Gobernuak onetsitako azpiegitura-plan zuzendariekin lotura duten inbertsioak finantzatzeko zenbatekoa foru lege bidez zehaztuko da lau urtean behin.

5. Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak aurrekontuei buruzko kasuko foru legeetan jasoko dira, gastuen aurrekontuko kredituetan, eta horietan kargatuko dira toki entitateen alde onartzen diren ordainketa betebeharrak, aurrekontua exekutatuzko prozedura arruntan arabera.

Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak, ekitaldi ekonomiko bakoitzean ezarritakoek, ekitaldiko azken egunean betebeharraren onarpena jaso ez dutenek, gerakin atxikiaren izaera izanen dute. Gerakin atxiki hori erabiltzen ahaliko da, bakarrik, funts horri egotz dakizkiokeen aurrekontu betebeharrei erantzun behar dieten kredituen zuzkidura handitzeko.

Udalek, kontzejuek eta eskualdeek Nafarroako zergetan duten partaidetza funtsaren zuzkidurak gauzatzen dituzten aurrekontu kredituak zabalgarriak izanen dira, eta haien gehikuntzak finantzatzeko bide bakarra aurreko apartatuan definitutako gerakin atxikia izanen da, hura ahitu arte, edo izaera bereko beste kreditu batzuk”.

Era berean, arau beraren zortzigarren xedapen iragankorrak Nafarroako Gobernua behartzen zuen finantzaketa-proposamen bat bidaltzera 2019ko abenduaren 31 baino lehen, halako moldez non tributuetako partaidetzaren ehuneko bat kontsignatuko zen, transferentzia arruntan banaketaren kalkulua egingo zen modulu batzuen arabera, dirulaguntza finalistak sartuko ziren, eta zehaztapen askeko zenbateko bat erreserbatuko zen.

**Kontuen Ganberaren 2019ko martxoko txostenak** babestu egiten du Toki Ogasunen Foru Legearen aldaketa onetsi berriaren irizpidea, eta hainbat gomendio egiten ditu, besteak beste, hauxe:

"Berriki onetsitako araudian proposaturiko aldaketak ezartzea **toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa kudeatzeko**, toki entitateen lankidetzarekin".

Hala ere, 6/2022 Foru Legeak bide hori erabat itxi zuen, partaidetza finkoa ezabatu baitzuen, eta, era berean, 7/2022 Foru Legeak Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria ezartzen duen Foru Legea indargabetu zuen eta osagarri berezi bat eman zion Udalar bere finantzaketa-araubide arruntean.

Hau da, bi foru-lege xedapen horien ondorioz, Nafarroako toki entitateek galdu egin zuten Nafarroako tributuetan partaidetza finkoa izateko eskubidea, eta, gainera, Iruñearen Hiriburutza Agiria ezabatu zuen, **Kontuen Ganberaren gomendioak urratuz**.

**Era berean**, Kontuen Ganberaren 2018ko martxoaren “TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSARI BURUZKO FISKALIZAZIO TXOSTENA” izeneko txostenak honako helburu hauek izan zituen:

III. Helburuak eta norainokoa. Gure lanaren helburuak honako hauek izan dira:

- Arrazoizko segurtasun terminoetan legezkoatasuna betetzeari buruzko auditoria-iritzia ematea eta egiaztatzea funtsaren kudeaketa aplikagarri zaion araudiaren araberkoa izan den.





- Udalerrien lagin batek 2009-2017 urteetan izandako bilakaera aztertzea, honako datu hauei begira: transferentzia arruntetarako funtsaren benetako zenbatekoa eta jasoko luketena formula aplikatuta, kontuan hartu gabe berme sistema, diru-sarrera arruntak, zerga diru-sarrerak, aurrezki gordina eta populazioa.
- Aldeztea transferentzia arruntetarako funtsaren kudeaketa Nafarroan eta EAE osatzen duten probintzietan 2009-2018 aldian.

Azken horri dagokionez, txostenak hauxe esaten zuen:

IV.3. Funtsaren kudeaketaren konparaziozko azterketa, Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artekoa. Biztanleko funtsa.

Nafarroako biztanleko funtsaren zenbatekoa alderatu dugu (bai transferentzia arruntetarako funtsarena bai kapitaleko transferentzietarakoarena) EAeko hiru probintzietakoarekin eta erkidego osokoarekin, bi erkidegoen finantzaketa eredu antzekoa baitute, bata Hitzarmenaren bidez eta besteak Itun Ekonomikoaren bidez. Nafarroaren kasuan, transferentzia arruntetarako funtsarekin eta kapital transferentzienarekin zerikusia duten aurrekontu-partiden zenbatekoak aztertu ditugu, eta horiei gehitu dizkiegu toki ogasunek eskola-kontzentrazioengatik jasotzen dituzten dirulaguntzetatik datozenak eta hautetsien ordainsariei buruzkoak, EAerekiko alderaketa homogeneoa izan zedin.

EAEn, funtsaren zenbatekoa prozedura honen bidez zehazten da: itundutako zergen aitortutako eskubide garbien guztizkoari kentzen zaio Estatuari Itun Ekonomikoaren bidez egiten zaion ekarpena; ehuneko 70 gutxi gorabehera Eusko Jaurlaritzaren finantzaketara bideratzen da, eta gainerako ehuneko 30a Foru Aldundietara. Azken zenbateko hori probintzien artean banatzen da urtero ezarritako portzentaje batzuen arabera. Ondoren, diputazio bakoitzak jaso duen zenbatekoaren ehuneko bat bideratzen du toki ogasunen finantzaketara: zehazki, Arabak ehuneko 57, Bizkaiak ehuneko 56 eta Gipuzkoak ehuneko 58.

Kontsiderazio horiek guztiak kontuan hartuta, Nafarroako eta EAeko biztanleko funtsa kalkulatu dugu 2009-2018 aldirako. Hona hemen emaitzak: 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 Nafarroa 377 370 320 351 335 336 335 332 347 378 Araba 540 650 562 588 527 604 640 618 708 724 Bizkaia 582 650 633 655 633 652 640 663 702 755 Gipuzkoa 489 554 501 535 538 585 609 625 650 713 EAE (osoa) 546 619 580 606 587 623 630 644 686 737

Datu horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Aztertutako urte guztietan Nafarroako biztanleko funtsa nabarmen txikiagoa da EAeko hiru probintzietako edozeinekin edo EAE osokoarekin alderatuta.
- 2018an, Nafarroako biztanleko funtsa 378 eurokoa da; hots, EAeko hiru probintzietako edozeini dagokionaren erdia. Alde horiek berdintsu mantentzen dira aztertutako gainerako urteetan.
- Nafarroako biztanleko funtsak ez du aldaketa esanguratsurik aztertutako aldian; izan ere, 2018koa 2009koaren oso antzekoa da (377 euro). EAEn, berriz, 2018an 737koa da batez beste, 2009ko zenbatekoa baino ehuneko 37 handiagoa.

Gainera, Ganberak probintziako hiriburuen arteko konparazioa egin du:

Bi erkidegoen artean hain alde nabarmenak daudenez biztanleko funtsari dagokionez, probintzia-hiriburuetakoa biztanleko funtsa alderatu dugu –erkidegoko hiriburukoa, Nafarroaren kasuan– biztanleria-tarte bakoitzean, jakiteko desberdintasunak biztanleria-tarte jakin batean kontzentratzen ote ziren.





Konparaketa horretatik hauxe ondorioztatu daiteke:

- Aztertutako aldian, 2009tik 2018ra, **Iruña da** biztanle bakoitzeko Tokiko Ogasunen Funtsaren diru-sarrerak biztanle bakoitzeko **murriztu dituen bakarra** (-% 0,5); gainerako hiriburuetan, berriz, nabarmen handitu da Toki Ogasunen Funtsa biztanleko: Donostian % 46; Bilbon, % 33 eta Gasteizen % 26.
- **Iruña da biztanleko zenbateko txikiena jasotzen duena** (418 euro biztanleko), gainerako euskal hiriburuetatik alde handira: Gasteizek Iruñeak baino % 58 gehiago jasotzen du (664 euro biztanleko); Donostiak Iruñeak baino % 79 gehiago jasotzen du (750 euro biztanleko), eta Bilbok Iruñeak halako bi baino gehiago jasotzen du (% 127), 952 euro biztanleko.

Hauxe da Kontuen Ganberaren ondorioa:

**Ikusten denez, Iruña da biztanleko zenbateko txikiena duen hiriburua; hain zuzen, 418 euro per capita. Gainera, aintzat hartutako denbora-tartean funtsa murrizten den hiriburu bakarra da, nahiz eta kontuan hartu behar den 2009an Iruñeko funtsak Toki Inbertsioen Planari zegozkion 9 milioi euro zituela, eta 2018an ez zela izan kontzeptu horrengatik inongo diru-sarrerarik. Eragin hori kontuan hartu ezean, ehuneko 12ko alde positiboa izanen zen, baina, hala ere, zenbateko hori gainerako hiriburuetakoa baino nabarmen txikiagoa da**

Gainera, euskal hiriburuak zenbateko finko gehigarri bat jasotzen dute konpentsazio gisa, txostenaren 20. orrialdean jasotzen denarekin bat:

Ikusten denez, alde nabarmenak daude EAEko probintzien artean ere, bai eta horien eta Nafarroaren artean ere. **Hala ere, badira bat datozen puntu batzuk, eta horien artean nabarmendu nahi ditugu probintzia-hiriburuak zenbateko finko bat esleitzea** eta biztanleria aintzat hartzea funtsa banatzeko aldagai funtsezko gisa.

Hau da, txostena ikusita esan daiteke 2019an eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriekin alderatuta, Iruñeak finantzazio txikiagoa zuela zerga autonomikoetan parte hartzeari dagokionez, nahiz eta, EAEko hiriburuak bezala, zenbateko finko bati eusten zion hiriburutzaren arloan.

Ganberaren txosten horrek hauxe gomendatzen zuen:

- *Transferentzia arruntetarako funtsean beharrezkoak diren aldaketak sartzeko aukera aztertzea, halako moduz non funtsa biztanleriaren irizpidearen arabera esleitzerakoan udalerriek ezin izanen duten jaso kontzeptu berdinegatik biztanleria kopuruaren arabera hurrengo udalerriak baino zenbateko txikiagoa.*







- *Udalerri bakoitzeko finantzaketa-zenbateko finko bat ezartzeko aukera aztertzea.*

b) Hiriburutza Agiria kentzearen ondoriozko finantzaketa-galera ez dago behar bezala jasota behin-behineko txostenean; izan ere, benetako murrizketa bat gertatzen da, txostenean aipatzen dena, eta, gainera, igurikimena ere ezabatzen da:

- ✓ Murriztapen efektiboa. 2022an, Iruñeak, Toki Ogasunen Funtsaren kontzeptuan, 2021ean baino 1,7 milioi gutxiago jaso zituen, aplikatutako bermea 2021eko zenbatekoaren % 98 izan delako.
- ✓ 2021eko eta aurreko ekitaldietako finantzaketa-ereduan zegoen igoera-igurikimena ezabatzea. Iruñeak bermatuta zuen finantzaketaren igoera-igurikimena bat; hain zuzen, erreferentziazko KPIa gehi ehuneko batekoa. Eta oinarri horren gainean egin ziren epe ertainerako zenbatespenak eta proiektzioak. Kontuan

hartuta 2022an aplikatu beharreko erreferentziazko KPIa % 3,2 izan zela, sistemaren aldaketaren ondorioz, espero zen 3,7 milioi euroko igoera ezabatu da (2021ean kobratutako zifraren % 4,2).

Hori horrela, finantzaketaren benetako galera 5,4 milioi eurokoa izan zen 2022an. Eta progresiboa eta metagarria da hurrengo ekitaldietan, eta, beraz, 2023an, irizpide berarekin, 11,8 milioi euro inguruan kuantifikatu zen. Eta hori guztia hiriburutzaren berezitasunari lotutako gastuen egitura aldatzeko aukerarik gabe, eta egokিতuta zuzenbidezko biztanleria bati eta Iruñeak ematen dituen zerbitzu publikoen onura, zuzenean edo zeharka, jasotzen duen behin-behineko biztanleria bati. Eta hori guztia inflazio handiko testuinguru batean, zeinean energia- eta lan-kostuak handitu eta erantzun beharreko gizarte- eta zerbitzu-premia berriak dauden.

Horrela, Nafarroako toki entitateek foru tributuetan duten parte-hartze ereduaren aldaketak nabarmen murriztu du Iruñeak Toki Ogasunen Funtsetik jasotzen duen finantzaketa, Hiriburutza Agiria ezabatzearen ondorioz. Finantzaketa horren jatorria argiro oinarrituta zegoen hura onartu zuen foru legearen zioen azalpenean: *“Iruñeko Udal Ogasunaren egoera bideratzeko behar diren zenbateko osagarriak kalkulatzeko biztanleria erantsia deitu multzoaren kopurua ikusi da lehenbizi, Iruñeko Udalen zerbitzua harendako kontraprestaziorik gabe hartzen ari direnena alegia, eta, ondoren, Iruñeko udal aurrekontua igotzen duten zerbitzu-handiagotze horien kostua kalkulatu da”*. Testu horrek adibide espezifikoa ematen zituen: Garraio Publikoa, Udaltzaingoa, Babes Zibila, Osasun Publikoa, Suteen Prebentzioa, Gizarte Zerbitzuak edo Azpiegituren Mantentzea, besteak beste. Gaur egun, zerbitzu horiei beste batzuk gehi daitezke, hala nola errausketako hileta-zerbitzuak. Hiriburutza-agiriaren arabera, Iruñeko hiria, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko hiriburua denez, bertako udalak berezitasun kualitatibo bat bereganatu du gainerako toki entitateen aldean, hiriko zerbitzu asko eta asko bertako biztanleek ez ezik, egitatezko beste biztanle askok ere eskatu eta erabiltzen dituztelako: Iruñerria deitu eremu zabal horretako eta Nafarroako beste tokietako biztanle mugikorrek eta bertako erroldan





inskribaturik ez dauden egoiliarrek, Foru Komunitateko Administrazioak eta Estatu Administrazioak Iruñean, Foru Komunitateko hiriburua izateagatik hain zuzen, dituzten zerbitzu publiko handi horiek erabiltzera hiriburura noizbehinka edo aldiro etortzen baitira. Izaera berezi horrek berekin dakar hiriko zerbitzu eta azpiegitura jakin batzuei gehiegizko garrantzia ematea, eta, ondorioz, gastua handitzea. Eta, gainera, berekin dakar prestazio horiei lotutako higiezin atxikipenik edo salbuespenik ezaren ondoriozko tributu bidezko diru-sarreraren galera.

## **2.- LABRITEKO PASABIDEAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNAK ERREKLAMATZEAREN KARIAZ.**

Behin-behineko txostenean hauxe gomendatzen da: *“antzeman diren erantzukizunak lehenbailehen erreklamatzeari bide guztietatik”*.

Jasota utzi nahi dugu prozedura horiek jada abian direla.

